

## Goiz Eguzkiren etorkizuna, jokoan

Egungo zuzendaritzak erreleborik ez daukala eta, elkartea desegin liteke, Paco Goya lehendakariak nabarmendu duenez.

6



29.549.159 euroko udal aurrekontua, alderdien sintonia onarekin.

HERNANI  
UDAL AURREKONTUAK 2


## Derbia gaur Astigarragan, Mundarrok eta Hernanik

ASTIGARRAGA-HERNANI  
SASKIBALOA 12

### AGENDA

GAUR : Kalez Kale  
12:00 : Kantari  
HERNANI

GAUR : 'Jumanji' pelikula  
16:30 : gazteentzat  
Biterin  
HERNANI



GAUR : Muxikoak Jeiki  
18:30 : Hadi taldearekin  
erromerian  
HERNANI

## Izaro Andres abeslariak irekiko du txotx denboraldia

Datorren asteazkenean izango da, Alorrenea sagardotegian, Sagardo Berriaren Eguna.

Izaro Andres Zelaieta abeslaria izango da aurten, Sagardo Berriaren Eguneko gonbidatu berezia. Berak irekiko du aurreneko kupela, datorren asteazkenean, Alorrenea sagardotegian; eta horrekin batera, hasiera emango dio aurtengo txotx denboraldiari. Txotx Berri Herrikoia ere egingo dute, egun berean, herriko tabernetan.



## Ereñotzuko presa botatzea agindu du Konfederazioak

EREÑOTZU  
URUMEA IBAIA 11

<b>THAILANDIA</b> Otsaila, martxo eta apirilean <i>Madridik hegaldia</i> 3 gau Bangkok + 4 gau Phuket, gosaria + bixita barne	1095 €
<b>ITSAS BIDAIA: FIORDOAK</b> Maiatzaren 31n <i>Bilbotik hegaldia</i> 10 eguneko itsas bidai DENA BARNE, Holanda-Noruega-Alemania	1580 €
<b>NUEVA YORK</b> Ekainaren 14an <i>Bilbotik hegaldia</i> 7 gau 3* hotelean alojamentua	1055 €
<b>ERROMA</b> Apirilaren 8an <b>ASTE SANTUA</b> <i>Bilbotik hegaldia</i> 5 gau 3* hotelean gosaria barne	668 €
<b>SALOU</b> Apirilaren 13an <b>ASTE SANTUA</b> 6 gau 3* hotelean pentsio osoan, 2 heldu + 2 ume	345 €
<b>LANDAS</b> Apirilaren 9tik 13ra <b>ASTE SANTUA</b> 4 gau, 2/4ko etxea..... <b>226 €</b> 4/6ko etxea..... <b>294 €</b> 6/8ko etxea..... <b>406 €</b>	
<b>CLUB MARCO POLO: ASTE SANTUAN BIDAIK TALDEAN</b> INDIA, GUATEMALA, VIETNAM, SENEGAL...	



ASTIGARRAGA  
TXOTX IREKIERA

7

[www.bidaibila.eus](http://www.bidaibila.eus)  
Taldeentzako prezio bereziak

HERNANI  
BIDAIK  
Urbieta, 6  
943 33 00 49

JARRAITU:





# Inbertsioetan jaitziera 2020an, «sintonia onean» onartutako udal aurrekontuetan

Azaroan Udal Gobernu Taldeak aurkeztutako 2020ko aurrekontu proposamenari, EAJren 5 emendakin, Elkarrekin Podemosen 4 eta PSEren 3 txertatu zaizkio. Horrek, hala ere, ez du eraginik izan diru-partida haundietan, eta abenduko azken Plenoan onartu ziren 2020ko udal aurrekontuak 29.549.159 eurokoak dira. Alderdien arteko «sintonia ona» nabarmendu dute denek.

## HERNANI UDAL AURREKONTUAK

Abenduaren 19ko Plenoan onartu ziren 2020ko Udal Aurrekontuak. Denera, 29.549.159 euro izango ditu. Horietatik, 392.807 euro Ereflotzuko Tokiko Udalerako izango dira; iaz baino %4,13 gutxiago, eta Ereflotzuko denera 396.907 euroko aurrekontua izango du. Beste 2.637.092 euro Zerbitzu Sozialetarako izango dira; iaz baino %13,82 gehiago, eta denera, Zerbitzu Sozialek 8.842.515 euroko aurrekontua izango dute. Azkenik, gainontzeko, 26.519.260 euro izango dira Hernaniko Udaleko aurrekonturako; iaz baino %10,39 gutxiago.

Aurrekontu proposamena bera aurkeztean Xabier Lertxundi alkateak eta Isa Sanchez ogasun zinegotziak azaldu zuten iaz baino diru-sarrerara gutxiago izango dituela Udalak aurten. «2019an ez-ohiko sarrerak izan ziren Zikuñagako Papeleraren zabalkundearengatik eta Galarretak eremuko zergengatik. Errealagoa da 2018ko aurrekontuekin alderatzea». Hori horrela, Ereflotzura bideratutako diru kopuruak ere behera egin du, «Udaleko diru-sarreraren arabera egokitzen baita». Baina Zerbitzu Sozialetara bideratzen den dirua «beharren arabera kalkulatu da. Aurten, langileen egonkortasuna eta baldintzak hobetzea izan da lehentasuna».

Bestalde, nabarmendu zuten «Fondo Foraletik, Gipuzkoako

Aldunditik datorren diru ekarpena asko igotzen ari dela azken urteetan, baina otsaila arte ez da jakiten zenbat izaten den. Hori horrela, kontu hartzaileak egiten duen aurrekontu proposamena kautela haundiarekin egindakoa izaten da. Gure diru-sarreraren %45 Fondo Foraletik dator. 2019an 14.000.000 aurrekusi ziren, eta azkenean, 14.600.000 izan ziren, baina itzultzea ere tokatu daiteke, nahiz eta baldintza malguak jartzen dituen Aldundiak, horretarako».

Dena den, azpimarratu zuten «garrantzitsuena dela Udal zerbitzuak mantendu edo igo egin direla; kale garbiketa, Zerbitzu Sozialak... Jaitsi direnak dira, inbertsioak».

## Elkarrekin Podemosen proposamenetik «%10 besterik ez»

Oposizioko hiru alderdiak abstenituta onartu dira 2020ko aurrekontuak, proposatu dituzten emendakinetako batzuk txertatu ondoren. «Sintonia ona» nabarmendu dute alderdi guztiek, eta Udal Gobernu Taldeak azaldu du «aurrena aurrekontu proposamena aurkeztu eta zantzak argitzeko denbora eman» ziola oposizioari, eta «negoiazteko aukera eman», gero.

Elkarrekin Podemosen kasuan, proposatutako lau emendakin txertatu dira, 70.000 euro artekoak. Batetik, 30.000 euroko partida, Atzieta kaletik Renfeko



Inbertsioen atalean «hasitakoak bukatu» nahi ditu aurrena Udal Gobernu Taldeak; Kulturarteko Plaza Feminista, adibidez.

apeaderorako eskailerak berrietzeko proiekturako. Bestetik, langileen formakuntzarako partidari 10.000 euro gehitzea; beraz, denera, 20.000 euroko partida jaso da. Era berean, espaloiak garbitzeko 20.000 euro gehiago jartzea ere txertatu da, eta Goiz Eguzki parkearen inguruko azterketa egiteko 1.000 euroko partida irekitzea. Dena den, «900.000 euro arteko proposamenak aurkeztu» dituela nabarmendu du Elkarrekin Podemosen, eta, beraz, «onartutakoak %10 besterik ez» direla izan. «Ez dira Udal Gobernu Talde berriarengandik espero genituen aurrekontuak, gure ustez aurrekontu kontinuitateak dira eta erakusten dute ez dagoela etorkizunerako proiektu sendorik».

Udal Gobernu Taldeak, aldiz, erantzun du «proposamenen %10 besterik» ez dela onartu, baina «bere horretan, beste batzuk guk jasotakoak baitziren; turismoaren ingurukoa, adibidez. Badaukagu plan bat». Elkarrekin Podemosen dio aurrera atera ez diren proposamenak izan direla disuasio-aparka-

lekua egitea, turismo erudian aldaketa egitea eta 2018ko planean, «oraindik martxan jarri ez den horretan» txertatzea; txotx denboraldian herrira sartzen diren autobusei mugak jartzea; Hernani berdeago bat sortzea zuhaitz eta lorategi bertikalak jarritz; eskoletako jangelak udal jangelak bihurtzea; edota sokamuturra eta zezentxoetarako festetan bideratzen den partida kentzea. Bestalde, garbiketa gehiago eskatu eta gertakarien berri emateko Horkonpon aplikazioa berri martxan jartzea ere eskatu zuten, «baliabideak aprobetxatu eta berrerabiltzeko. Hemendik, 20.000 euroko partida gehitu dute espaloiak garbitzeko».

Azkenik, Elkarrekin Podemosen gehitu du badela beste proposamen bat onartu dena: «telefono kabinak ondare industrial gisa berreskuratu eta telefono mugikorrek USB bidez kargatzeko berrerabiltzea, eguzki plaken bitartez».

## «Kontinuista, nahita»

Hain zuzen, Udal Gobernu Taldeak nabarmendu du «au-

rrekontu kontinuitateak direla, baina nahita, ez esperientzia falta dugulako. Bidean dauden proiektuak bukatu nahi ditugu».

Inbertsioen atalean martxan dauden eta bukatu nahi dituzten proiektuen artean nabarmendu ditu Kulturarteko Plaza Feminista eta Atsegindegiko obra. «Inbertsioen bidea oso luzea da: aurreproiektua egin, gero proiektua, ondoren hau esleitu... Burokrazia oso mantsoa da, eta gertatu izan da esleitu gabe geratzea obraren bat, enpresa askok obra txikitara ez dutelako sartu nahi». Era berean, Sandiusterriko aretoa egokituko dute Musika Eskola eta Ttarla dantza taldearentzat gela berriak sortzeko; Milagrosa berrituko da; Lizeaga auzoko Madalena kalea urbanizatuko da; Portu eta Elizatxoko peatonalizatorako azken fasea gauzatuko da. «Bideak zuzen ikustean, azkartzeko joera daukagu, eta lurrean markak ikusita, mantsotu egiten dugu. Interbentzio biguinak egin dira, probarako, eta behin betikoak izango dira, azken fasean», azaldu

## Kronika

Larramendi 11, Hernani  
 ☎ 943 33 08 99  
 688 660 714

Lege gordailua:  
 SS-1469/2018  
 ISSN: 2659-5036

Eposta:  
 kronika@kronika.eus,  
 astigarraga@kronika.eus,  
 urumea@kronika.eus eta  
 publi@kronika.eus.  
 www.kronika.eus

Lan-taldea:  
 A. Arbelaitz, O. Egaña,  
 I. Goñi, L. Goñi, B. Los  
 Arcos, A. Moreno, J. Osa,  
 M. Ramirez de Alda eta  
 J. Zubitur.

### Argitaratzailea:



Larramendi 11, Hernani  
 ☎ 943 33 27 99  
 Eposta: dobera@dobera.eus  
 www.dobera.eus

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

### Laguntzaileak:



Hernaniko Udala



Astigarragako Udala



Auzo Udala



GOZUETAKO UDALA



ARANOKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
 GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
 POLITIKA SAILA

DOBERA BAZKIDEAK  
 KRONIKALARIAK

TOKIKOM





dute.

Gehiagoren artean ere azpimarratu dituzte Urbietako kaleko peatonalizazioa; Elizatxo ikastolarako psikomotrizitate gela; kanpoko igerilekuen egoeraren azterketa; «eukalipto landaketak saihesteko» lur erosketa; Osinagako zubirako proiektua egitea; Landare inguruko bidegorri proiektua egitea; Elizatxotik Urnietarako bideko azken urbanizazio fasea; udaletxeko teilatua aldatu eta energia planaren barruan eguzki plakak jartzeko proiektua egitea; Plazako irisgarritasuna aztertzeke plana egitea; edota turismo bulegoa Plazan jartzeko lokala erostea.

Azkenik, Udal Gobernu Taldeak nabarmendu du «negoziatzen diren inbertsioen emaitza» izan diren inbertsioak ere badirela. Batetik, apeaderora jaisteko proiektua, Elkarrekin Podemosek proposatua. «Adifek aldatu egingo du apeaderoa, eta Portura joateko bidea itxiko da. Horri konponbidea bilatu nahi zaio». Bestetik, Atsegindegiko markesina haunditzeke proposamena, PSE-EEK egina; «ilara luzeak sortzen dira».

#### «Akordio garrantzitsuak», PSE-EEK

PSE-EE alderdiak onartu du «akordio garrantzitsuak» lortu dituela aurkeztutako emendakinen inguruan. «Gure taldeak ezin ditu aurrekontuak babestu, diru-laguntza ideologikoak badaudelako (Hobeki edota Udalbiltza aipatzen ditu). Baina sintonia ona izan dugu eta aurkeztutako 26 emendakinetako batzuk onartu direnez, konfiantza eta aukera eman nahi izan diegu aurrekontuei, Hernani eta herritarren onurarako».

Denera, PSE-EEK aurkeztutako hiru emendakin onartu dira, 14.216 euro artekoak: aipatutako Atsegindegiko autobus markesinak haunditzeke 10.000 euroko partida; ezohiko kirol ekintzarako partidara 1.000 euro gehitu eta beraz, 6.000 euro bideratzea; eta kirol klubei ematen zaien diru-laguntza 3.216 euro haunditzea, denera, 80.000 euroko partida osatuz.

Horrez gain, partidariak haunditu beharrik gabe, sozialistek azpimarratu dute onartu dela, baita ere, udaletxeko teilatuan eguzki plakak jartzea. Era berean, auzotarako oinarritzeko euskera ikastaroak antolatzea ere onartu da; bizilagun elkarteetako lokaletan wifi puntu publikoak jartzea aztertzea ere bai; eta baita Elkano eta Latsunbe arteko oinezkoentzako bidegurutzean trafikoa arintzeko pultsadoreak jartzea ere. Bestalde, «sintonia onaren adierazgarri» izan da, sozialisten ustez, aurkeztu dituzten emendakinen batzuk dagoeneko txertatu



2020ko udal aurrekontuetako inbertsioen atalean hasitako proiektuak bukatzeari eman zaio lehentasuna; Atsegindegin lanean ari dira.

tuta egotea; hala nola, Elizatxo eta Portua kaxkoarekin lotzeko irisgarritasuna, igogailu batekin hobetzea; langile politika hobetzea; auzoen parte-hartzea sustatzea inbertsio eta hobekuntzen inguruan erabaki dezaten; eta igerileku irekiek aukera gehiago ematen ote duten aztertzea. Baina azaldu dute, baita ere, baztertuak izan direla beste hainbat emendakin: eskola materiala erosteko 25.000 euroko partida; herriko elkarteek egin behar dituzten tramiteetan laguntzeko langile baten kontrataziorako 12.000 euro; atletismo pistan harmailak eraikitzeke 5.000 euroko partida; edota 25.000 euroko partida hirugarren hizkuntza bat ikasteko.

Bestalde, hondakin bilketa sistemaren inguruan aldaketak txertatzeko sozialistek egindako proposamenen aurrean EH Bilduk erakusten duen «jarrera itxiaz» kexatu da.

#### Emendakinak hiru alorretan, EAJK

Azkenik, Udal Gobernu Taldeak azaldutakoaren arabera «aurrekontuetan eragin ekonomikorik izan ez» badute ere, EAJK proposatutako bost emendakin ere onartu dira: luzaroko bajak dituzten langileen lanpostuak betetzea; atez ateko bilketa sistema hobetzeko proposamenak egiteko aukera izatea; etxebizitza alokatzeko ematen diren diru-laguntzetarako dagoen partida amaitzen bada, partida hori haunditzea baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiak onartu ahal izateko; lanpostu publikoak betetzeko momentuan, parekidetasuna eta minusbaliaren legeek ezartzen dituzten

ehunekoak betetzea; eta etxebizitza publikoak esleitzerakoan adineko pertsonen kolektiboa lehenestea.

Bere aldetik, EAJK azaldu du «15 emendakin baino gehiago prestatu» zituztela, baina «kudeaketa eta udal antolaketa arazoek larrialdi egoerara bultzatu» zituztela, eta azkenean 5 bakarrik aurkeztu zituztela. «Ez zuen ezertarako balioko aurrekontuak onartzeak, emendakin asko negoziatzeak edo Hernani Erabaki parte-hartze prozesuko proposamenak sortzeak, barruko arazoak konpondu ezean. Beraz, lan egin dugu akordioak lortzeko udal kudeaketa hobetzeko, gizarte alorreko hiru arlotan ekintzak egiteko eta Atez Atekoaren eta bosgarren edukiontzaren inguruko errealitatea ezagutzeko».

Onartutako aurreneko proposamenari dagokionez, jeltzaleek inbertsioen partidatik 400.000 euro kendu eta arkitekto, abokatu eta administrariak kontratatzeke bideratzea proposatu zuen, «2019ko gerakina berriro ere ikaragarria izango dela espero baitugu»; behar den sailak egonkortzea adostu da, azkenean. Bigarren proposamenari lotuta, 15.000 euroko partida jaso nahi zuen ikerketarako EAJK, eta onartu ez bada ere, proposamenak egiteko aukera ireki da. Alokairuak ordaintzen laguntzeko gazteei bideratutako partida 28.000 eurora, eta helduei zuzendutakoa 65.000 eurora haunditzea eskatu zuten bestalde, eta eskariei erantzun arte behar dena jartzea adostu da azkenean. Udal Gobernu Taldeak azaldu du partida horretan ez dela kopururik jarri, orain arte

#### 2020ko UDAL AURREKONTUA

**29.549.159 euro**

#### UDALA EREÑOTZU ZERBITZU SOZIALAK

**26.519.260 euro**  
**392.807 euro**  
**2.637.092 euro**

#### HERRI AKTIBOIA

**7.470.919 euro**

Jarduera fisikoa eta kirola  
Hezkuntza  
Kultura  
Euskara zerbitzua  
Herritarren partehartzea

2.213.640 euro  
2.285.724 euro  
1.682.952 euro  
1.140.121 euro  
148.482 euro

#### HERRI JASANGARRIA

**14.094.852 euro**

Komunitatearentzako zerbitzuak  
Etxebizitza eta hirigintza  
Segurtasuna eta mugikortasuna  
Tokiko garapena eta enplegu sustapena  
Ingurumena

7.852.864 euro  
2.394.286 euro  
1.784.775 euro  
1.164.601 euro  
898.326 euro

#### HERRI SOLIDARIOA

**3.685.805 euro**

Zerbitzu Sozialak  
Berdintasuna  
Lankidetzak  
Gazteria  
Inmigrazioa

2.637.092 euro  
417.808 euro  
253.552 euro  
257.353 euro  
105.000 euro

Zor publikoa amortizatzea  
Administrazio gastua

**372.500 euro**  
**3.925.083 euro**

ikasturteka eman direlako laguntzak, baina «udal kudeaketarako hobea da urteka ematea, eta horregatik, 2020ko abendura arteko laguntzak 2019ko aurrekontuan jaso ziren». Laugarren proposamena, bestalde, bere horretan onartu da, eta azkenekoari dagokionez, jeltzaleek «gerakineko %10, 2.000.000 euro baino haundiagoa bada, irisgarritasun arazorik ez duten etxeak erosteko bideratzea» proposatu zuten, «beren etxeetan arazoak dauzkaten adinekoei bideratzeko. Hauen etxeak libre geratuko lirake eta udalak kudeatuko lituzke». Irisgarritasun neurriak betetzen dituzten etxe-

bizitza publikoak eraikitzeke proiektua badagoenez, kontuan hartuko da adinekoen kolektiboa lehenestea.

Lortutako akordio guztiak medio, Udal Gobernu Taldeak adierazi du «oso sintonia ona» izan dela, eta espero duela «urtero aurrekontuak onartzea horrela izatea». Lertxundi alkaterearen ustez, «ez da gure jarrera aldatu. Beti prest izan gara negoziatzeko. EAJ aldatu da. Lehen osoko zuzenketa aurkezten zuten, eta orain negoziatu egin dugu. Baita PSE-EE eta Elkarrekin Podemosekin ere. Jarrantuko dugu biltzen eta ahal den proposamen gehien satzen». **K**





Eskubide Sozialen Kartak Greba Orokorra aurkeztu zuen pasa den abenduan.

## «Murrizketekin kendu digutena berreskuratzeko garaia da»

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak Greba Orokorra egiteko deia zabaldu du datorren urtarrilaren 30ean: «eskubide sozialen alde».

HERNANI LANA

Urtarrilaren 30ean Greba Orokorra izango da, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deitua. «Euskal sindikatuok eta eragile sozial ugari (pentsiodunak, feministak, ekologistak, gazte-mugimendua, bazterketa sozialaren aurkako plataformak, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Sarea...) osatzen dugu Karta».

Hego Euskal Herriko pensiodunen mugimenduak bi urte daramatza pensio duinen alde astero mobilizatzen; bide horretan, pensioen eremuaz gaintzi, modu zabalagoan «planto» egiteko beharra plazaratu dute, euren aldarrietatik harago joateko asmoz.

### Pentsiodunen aldarriekin bat egin dugu eta mugimendu bien arteko konfuentzia eman da

Duela sei urte, sindikatu eta eragile sozial ugari herritarren eskubide sozialak biltzen dituen Karta osatu zuten, prozesu parte-hartzaile baten bidez. «Orduz geroztik eskubide horien aldeko ekimenak antolatu ditugu. Orain, mugimendu bien arteko konfuentzia eman da, pensiodunen eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren artekoa, alegia. Gaurko pensiodunei eta etorkizunekoiei, guztioi eragiten digun borroka da pensio sistema publikoa defendatzea, lan harremanetarako eta babes sozialerako sistema propioa

lortzea, 1.080 euroko gutxieneko pensioa aldarrikatzea, jubilatzeo adina murriztea, edota eros-ahalmena legez bermatzea».

### Prekarietatearekin amaitu eta lan eta bizi baldintzak duintzeko neurriak beharrezkoak dira

Greba Orokorrekin, eta aurretik lantzen ari diren dinamikekin, prekarietatearekin amaitu eta lan eta bizi baldintzak duintzeko neurriak hartzeko beharra jarri dute mahai gainean, horien artean: lanaldia 35 ordura jaistea, 1.200 euroko gutxieneko soldata ezartzea, soldata-arrakala amaitzea nahiz azpikontratazioetan enplegua eta lan-baldintzak bermatzea.

Era berean, «egun ukatuak diren eskubide sozialak aitor-tzea erreklamatzeko; alokairu sozialeko etxebizitzak bermatzea, zein menpekotasun egoera guztiei erantzun egokia ematea, zerbitzu sozialen sistema publiko, unibertsal eta doakoaren bidez. Bizitza erdigu-nean jarriko badugu, ezinbestekoa da zaintza lanak ikusarazi, duindu eta bermatzea».

«Garaia da azken urteetan murrizketekin kendu diguten guztia berreskuratzeko, eta dagozkigun eskubideen alde kalera ateratzeko. Pentsio, lan-baldintza eta bizitza duinak nahi ditugu eta lortu arte borrokan jarraituko dugu, planeta suntsitzen ari den sistema ekonomiko eta sozial kapitalista, neoliberal, patriarkal honek ezartzen

duen logikaren aurka» diote Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karteko kideek.

### «Presioa egitea beharrezkoa da patronala eta instituzioen aurrean»

Honela gauzak, erabaki dute «krisiaren aitzakian azken hamarkadetan azkartu den lan eta bizi baldintzen prekarizazioari mugak jartzea. Lan baldintza, pensio eta bizitza duinak bermatuko dituzten neurrien aldeko mobilizazio dinamika abiatzea».

«Ondo dakigu presioa egitea beharrezkoa dela patronalak eta instituzioek (Eusko Jaurilaritza, Nafarroako Gobernua, Espainiar Gobernua) gure eskakizunen aurrean amore eman dezaten». Horregatik, urtarrilaren 30ean, Greba Orokorra egiteko deia zabaldu diete herritarrei.

### Pentsionistak bi urte daramatzate eskubideak eskatzen eta pensio duinak bermatzeko borrokan

Asteleheneretik astelehenera, 13.000 pensiodun ehun bat herritako plazak betetzen dituzte Araban, Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroan eta dozena bat manifestazio jendetsu egin dituzte, «baina oraindik ez ditugu lortu gutxieneko helburuak».

Urtarrilaren 30eko Greba Orokorrak horretan lagunduko duela diote Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak. Eta jubilatuei dei egiten diete baita Greba egitera. **K**



Eguraldi txarra eginez gero udaletxeko arkupetan egingo dute.

## Muxikoen dantza gaur, Jeiki Hadi taldearekin

Arratsaldeko 18:30etan hasiko da Plaza Berrin San Joan Konpartsak antolatuta.

HERNANI SAN JOAN KONPARTSA

Gaurko jarri du hitzordua San Joan konpartsak, erromerian

dantzan aritzeko. Plaza Berrin muxikoen dantza saioa gidatuko du Jeiki Hadi taldeak, 18:30etan hasita. Urteko lehen-dabiziko zita da gaurkoa eta urtean zehar hileko bigarren larunbatean egingo dute erromeria normalean. Hilabeteren batzutan aldatuko dute festak direla eta. **K**

## 'Sorry we missed you' eta 'Jumanji'

HERNANI ZINEA

*Sorry we missed you* eta *Jumanji* Biterin jarriko dituzte asteburu honetan. Helduentzako *Sorry we missed you*, gaur 19:30etan eta 22:30etako saioekin eta astelehenean 16:30etan. Ordu horretan, 16:30etan, gaur eta bihar *Jumanji* ikusiko dute gazteenek.

## Enplegu eskaintza berria egin du Udalak

UDALA ZERBITZU SOZIALAK

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak ofizioetako lanpostuak sortu ditu. Guztira 33 lanpostu izango dira, oposizio bidez kontratatuko direnak. Horietatik 23 lanaldi osoan; klinika laguntzaile bezala 20 eta garbitzaile bezala hiru. Lanaldi erdian, berriz, garbitzaile posturako 10 dira. Informazio gehiago, Udalean eskuratu daiteke.

# Itxas-Buru

## Sagardotegia

Osiñaga Auzoa  
20120 HERNANI  
TEL. 943 556 879  
[www.itxasburusagardotegia.com](http://www.itxasburusagardotegia.com)

D.O. EUSKAL SAGARDOA



**18an hasiko dugu txotx denboraldia**

Asteazken gauetik igande eguerdira irekita  
(ostegun-ostiral eguerdiak barne)

HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA

# Egin gurekin bat!

Urtarrilean matrikula irekita

Ikasleek aukera izango dute dauden taldeetan sartzeko.

**Dirulaguntza handiak! Etorri galdetzerak!**

**19/20 ikasturtea**



HERNANIKO Udal Euskaltegia  
Karobieta 63 (Anbulatorio zaharra)  
HERNANI  
Tel. 943 331 896  
[euskaltegi@hernani.eus](mailto:euskaltegi@hernani.eus)



# Etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntza deialdia zabalik

2019ko irailaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitarteko alokairu-gastuak, eta bakarkakoa zein bizikidetzaren unitatekoa lagunduko dira.

## UDALA DIRULAGUNTZAK

Bosgarren urtea da Hernaniko Udalak etxebizitzaren alokairua ordaintzera bideratutako laguntzak eskaintzen dituela. Dirulaguntza horiek bi helburu nagusi dituzte: gazteak, bereziki, emantzipazio bidean laguntzea eta herrian etxebizitzaren alokairua sustatzea. Deialdia Hernaniko herrian alokairuan bizi diren 18 urtetik aurrerakoei zuzendua dago.

Dirulaguntza horietarako 219.000 euro bideratu dira. Bi modalitate daude: gazteenak (18-35 urte bitartekoak) 136.000 euroko partida du, eta helduek (36 urtetik gorakoak) 83.000 euroko partida.

2019ko deialdian kontuan izateko hainbat aldaketa daude. Batetik, diruz lagunduko diren alokairu-gastuen epea luzatu egin da. 12 hilabetekoa izan ordez, 16 hilabetekoa izango da.

Beraz, diruz lagunduko dira 2019ko irailaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitarteko alokairu-gastuak.

Bestetik, eskatzaile motak ere aldatu egin dira. Bi eskatzaile mota daude: bakarkakoa edo bizikidetzaren unitatekoa. Ez dira bizikidetzaren unitateko hartzen senidetasun edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkorrik ez duten pisukideak. Kasu, horietan, bakarkako eskaera egin dezakete.

## Martxoaren 9an amaituko da eskaera egiteko epea

Eskaera egiteko epea 2020ko martxoaren 9an amaituko da. Eskaera-orria eskuragarri dago udalaren web orrian eta Herriarren Harrera Zerbitzuan. Eskaera-orria egoki bete eta beharrezko dokumentazioa atxikita, udal erregistroan aurkeztu behar da. Aurreko urteetan eskatzaile izan bazara, eta dagoe-

neko eskatzen den dokumentazioa Udalean badago, ez duzu berriro aurkeztu beharko.

Behin eskaera guztiak aztertuta, beharrezkoa den kasuetan, dokumentazioa eskatzeko epea zabalduko da. Eskatzaileari gutun bidez jakinaraziko zaio zein dokumentazio aurkeztu behar duen.

Maiatza aldera espero da dirulaguntzaren behin behineko ebazpena. Gutun bidez jakinaraziko zaie, baita ere, onuradun izan diren, eta horrela bada, zebateko dirulaguntza jasoko duten. Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da. Lehen ordainketa ebazpenaren ondoren egingo da, horretarako dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren. Bigarrena, berriz, 2021eko urtarrean izango da.

Dirulaguntza hauen kudeaketa, Politika Sozialetako Haur, Nerabe eta Gazteria Arloak daruma. Informazio zehatzagoa behar izanez gero, ondorengo harremanerako bideak daude aukeran: [gazteria@hernani.eus](mailto:gazteria@hernani.eus), edo 943 337004 (Virna) eta 943 575435 (Maidier). **K**

## Kantu saioa, Kaxkoko kaleetan

### KALEZ KALE KANTARI EGUTEGIA

Urteko aurreneko kantu saioa egingo du Kalez Kale Kantari taldeak gaur, eguerdiko 12:00etan Plaza Berritik aterata, Kaxkoko zehar. Partehartzea beti irekia izaten da. Urteko egitaraua ondorengoa da: otsailak 8, martxoak 14, apirilak 18 (hilaren 11 Aste Santua izango da), maiatzak 9, ekainak 13, irailak 12, urriak 17 (data honekin 15 urte beteko ditu Kalez Kale kantari eta saio berezia prestatuko dute), azaroak 14, eta urteari amaiera emateko, abenduak 12. Uztailean eta abuztuan ez da saiorik eginen, oporren ondorioz.



Kalez Kale kantari ibiliko dira gaur Kaxkoko zehar.

## Bilbon eta Baionan gaur, manifestazioak

### SARE MANIFESTAZIOA

Sarek euskal presoen eta iheslarien eskubideen aldeko manifestazioak antolatu ditu gaurko, Baionan eta Bilbon. Bilbora joateko autobusa 14:30etan irtengo da Atsegindegitik eta 14:00etan Baionara joan behar dutenentzako, hau ere Atsegindegitik.

## Irekita dago udaberriko Kutxa Kultur Geletan izena emateko epea

### KUTXA FUNDAZIOA KULTUR GELAK

Kutxa Fundazioaren aisialdi- eta kultura-programazioak (ohiko Kutxa Kultur Gelak) ireki du aste honetan izena emateko epea. Jarduerak otsailean hasi eta 2019ko ekainera arte luzatuko dira. Izen emate epea urtarrilaren 22 arte luzatuko da. Liburuxkak Kutxabaneko bulegoetan eta Kutxa Kulturen (Tabakalerako 4garren solairua) jaso daitezke.

## Euskaraldian zer entitate nahi den gomendatzeko inkesta, bihar arte

### DOBERA EUSKARA ARI DU

Euskara Ari Duk martxan jarri duen inkestan parte hartzeko azken eguna bihar da. Horrela, [www.labur.eus/euskara20](http://www.labur.eus/euskara20) web gunean eman daiteke erantzuna. Bertan, herritarrek gomendatu dezakete zein entitate edo elkartetan jarriko luketen abian gonbidapena. Euskaraldian norbanakoei ez ezik, entitateei (enpresei, kultur elkartei, kirol taldeei...) ere parte hartzeko gonbidapena egingo zaie, euren eremuetan hizkuntza ohiturak aldatzeko, eta entitateko kideen partehartzea sustatu eta babes dezaten. Hernanin ariketa kolektibo honetan zein entitatek esku hartu beharko luketen jakiteko inkesta edo partehartze prozesu bat jarri du martxan Euskaraldiak. Aurkezpena datorren asteartean egingo da.

### Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



## ANTONIO POLAINA ORTEGA

Besarkada haundi bat familiari.

### NAROA ETA AMAIA

Hernanin, 2020ko urtarrilaren 11n



## ANTONIO POLAINA ORTEGA

Ez agurrik, ez adiorik gero arte baizik. Muxu asko.

### ORTEGA FAMILIA

Hernanin, 2020ko urtarrilaren 11n



**FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu? Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.

**943 33 10 20** [www.funerariaorbegozo.com](http://www.funerariaorbegozo.com)

\* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin

\* Beilatokiak

\* Errausketak

\* Lekualdatzeak

\* Eskelak, koroak...

Zentrala Latsunbe 7, Hernani

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA





# «Goiz Eguzkiren etorkizuna eta existentzia bera daude jokoan, horrek esan nahi duenarekin»

Paco Goya lehendakaria izan da azken 14 urteetan, eta egoera larria dela dio. «Goiz Eguzki adineko askorentzat bere babeslekua da, eta hori bukatu egingo da».

HERNANI GOIZ EGUZKI

Paco Goyak eta bere taldeak 14 urte daramatzate lehendakari eta zuzendaritza batzorde bezala Goiz Eguzki elkartearen eta «erreleboa behar dugu» dio Goyak Kronikari eskainitako elkarrizketan. «Zahartu gara eta oso nekatuta gaude. Urte batzuk daramatzagu erreleboa eskatzen urtero egiten ditugun ohiko batzarretan, baina ez da inor aurkezten. Iritsi da momentu bat ezin duguna jarraitu».

Egoeraren berri eman zaie bazkideei idatzi baten bidez eta etzi egingo da ez ohiko batzarra. «Elkartearen egunerokotasuna eramateko jende berririk ez dago. Hori da dena».

Jendeak galdetzen duena da zer gertatuko den Goiz Eguzkirekin zuzendaritza berririk ez baldin badago?. 14 urtetan lehendakari izan den Goyak argi du. «Zuzendaritzarik ez badago ezin da elkarterik egon. Goiz Eguzkiren izatea edo existentzia bera daude jokoan. Horrek esan nahi duenarekin» eta horrek ematen dio min gehien Goyari.

Goiz Eguzkirekin zer gertatuko den Udalak eta Ongizateak erabakiko luke. «Guk Udalaren eta Gizarte Ongizate departamentuaren babespean gaude».

Etziko ez ohiko batzarra erabiliko da bazkidei gogoarazteko elkartearen egoera eta zer gertatuko den zuzendaritzarik ez balego. Otsailean, urteroko ohiko batzarrean, emango da hurrengo pausoa, eman beharrekoa gertatzen denaren arabera.

Paco Goya eta bere plantxak utzi egingo dute jarduna, baina beste norbaitek hartuko balu laguntzeko prest egongo liriateke. «Noski zuzendaritza berria ez genuke albo batera utziko. Aurreneko pauso horietan lagunduko genuke martxan jartzeko eta eguneroko jarduna nolakoa den erakusteko».

Hala ere, gauzak argi esatearren Goyak ilun ikusten du etorkizuna. «Kalean ibiltzen naiz eta entzuten ditut gauzak; eta esan beharra daukat, momentu honetan ez dudala zuzendaritza berri baten berririk entzun. Egutero nago hemen, baina ez da ezerrez entzuten».

**Kudeatzailerik gabe ez dago elkarterik eta dena galduko litzateke**

Udala ez litzateke kargu egingo eta Goyak dio bazkideetatik etorri behar dela irtenbidea. «Elkartea desegin egingo litzateke eta bukatu da. Gero Udalak ikusiko luke jubilatutako etxearrekin eta egoitzarekin zer egin, baina elkartea bera ez litzateke existituko».

1.500 bazkide ditu Goiz Eguzki eta horiek denak galduko litzateke. «Ez baldin badago kudeatzailerik, ez legoke elkarterik, ez bazkiderik, ez da kuotarik ordaindu beharko, ibilaldiak bukatuko dira, pedikura zerbitzurik ez da egongo, egiten diren ekitaldi guztiak bertan behera geratuko dira, hamaiketakoak-lunch-ak, jokoak, maiatzaren leku eguna, San Joanetakoa, Santo Tomaseko eguna, hitzaldiak, loteria... elkartea bera ere itxiko litzateke seguruenik».

**47 urte bete ditu eta «azken 14 urtetan asko aldatu da»**

14 urtetan talde bera egon da eta Paco Goyak egiten duen balantzea oso positiboa da. «Asko aldatu da urte hauetan. Nire izaera da gauzak egitearena eta urte hauetan gauza asko egin dira elkartearen. Elkarteko oraingo sarrera berria egin dugu urte hauetan, lehen ez zegoen areto nagusirik, abesbatza bera ere ez zegoen». Abesbatzarekin zer geratuko den ez daki, baina «lekua eta elkartaren dirulaguntza behar ditu nahitanahiez. Gure laguntza hori bukatuko da. Latinez esaten den bezala *Consummatum est*».

47 urte bete ditu Goiz Eguzki elkarteak. «Azken finean adinekoentzako txokoa da arratsaldea edo goiza pasatzeko. Batez ere arratsaldea. Adineko askok hemen egiten dute bizitza neguan; Bertara etorri lau-sei gailatekin, kafesnea hartu, goxatu eta gero etxean zuzenean ohera sartu, gehiago baliabide gutxi dituen jendea dagoenean. Hemen bere koadrila txikia egiten dute, afaldu beharrik ez dute, baina hori dena *Consummatum est*. Arazoa larria da, Goiz Eguzki adineko askorentzat babeslekua baita eta hori bukatu egingo da». **K**



Paco Goya Goiz Eguzki jubilatutako etxearrean.

## Etzi egoeraren berri azalduko dute Alkateak eta Ongizateko Gerenteak

Arratsaldeko 17:30etara daude deituak bazkideak ez ohiko batzarrean eta bertan kontzientziak mugitu nahi dira aurrerapausoak emateko.

HERNANI GOIZ EGUZKI

Hernaniko Goiz Eguzki Jubilatuen etxea egoera estuan aurkitzen da ez baita Zuzendaritza Batzorderako talde berririk aurkeztu. Horrek bere etorkizuna zalantzan jarri du eta horri irteera emateko etzi, astelehenean, urtarrilaren 13an, ez ohiko batzarrean daude deituak bazkide guztiak. Arratsaldeko 17:30etan antolatu da batzar berezi hori eta bertan egongo dira, besteak beste, Xabier Lertxundi alkatea, Ongizateko gerentea den Joseleonek Etxart eta gaur egungo zuzendaritza batzordea. «Jubilatuaren etxea desagertzeko

arriskua dago, kudeaketa bere gain hartzeko bazkide faltagatik. Inork ez du erantzunik hori hartu nahi» dio zuzendaritzak.

**14 urte eta gero dimisioa aurkeztu zuen Zuzendaritzak** Gogoratu behar da gaur egungo Zuzendaritza Batzordeak pasa den urriaren 21ean dimisioa aurkeztu zuela, baita Francisco Goya lehendakariarena ere, 14 urte eta gero. Bazkideek otsailean egingo den bazkideen batzarrean baiezkota eman behar diote zuzendaritza berriaren osaketari, baina ez da talderik oraindik aurkeztu. Otsaileko

batzarra arte oraingo zuzendaritzak jarraitzen du eta egun horretakoa izango da azken egitekoa, batzarra zuzentzea.

Hala ere, «bazkideak jabetu behar dira lehendakari eta zuzendaritza batzar berria aukeratzeko ez bada, Goiz Eguzki jubilatuen elkartearen zuzendaritza organorik gabe geratuko dela, eta elkartea likidatu egingo dela, eta, ondorioz erregistroan baja emango zaiola» diote gaur egungo Batzordekideek.

Etziko ez ohiko batzarrean, Alkateak eta Gizarte Ongizateko gerenteak horren berri eta elkartea nola geratuko den azalduko dute.





Izaro Andres abeslaria izango da aurtengo gonbidatu berezia. Argazkia: Mikel Blasco

## Izaro Andres abeslariak irekiko du txotx denboraldia

Datorren asteazkenean izango da Sagardo Berriaren Eguna, eta Alorrenea sagardotegian irekiko dute uzta berriko aurreneko kupela.

### SAGARDOA TXOTX IREKIERA

Lau egun besterik ez dira falta, txotx denboraldi berriari hasiera emateko. Datorren asteazkenean izango da Sagardo Berriaren Eguna, Astigarragan. Eta aurtengo gonbidatu berezia ere, dagoeneko eman dute aditzera: Izaro Andres Zelaieta abeslariak irekiko du aurreneko kupela.

26 urterekin, dagoeneko arrakasta haundiko musikaria da, Donostian bizi den mallabiarra, eta hainbat sari jaso ditu. Iker Lauroba, Oriol Flores eta Julen Barandiaran ditu taldekide. Donostian Komunikazio Gradua egiten ari zela hasi zen gitarra jotzen, ikaskide bati tonbola batean tokatu zitzaionarekin; eta Kalifornian ikasketak bukatzen ari zela, erabaki zuen musikari izan nahi zuela. Bi disko kale-ratu ditu orduetik: *om* 2016an eta *eason* 2018an.

**Irekiera ekitaldia, Alorrenean**  
Asteazken eguerdian hasiko da sagardoaren festa, Astigarragan. Sagardoetxean jarri dute zita, 12:00etan, eta aurkezpen ekitaldia izango da bertan. Aditza emango dituzte 2019ko uzta-aren ezaugarri nagusiak; bai sagarrarenak, eta baita sagardoarenak ere. Eta sagardoaren munduko gertaera garrantzitsuenen berri ere emango dute. Bertan izango dira Xabier Urdangarin alkatea eta Sagardun Partzuergoko lehendakaria; sagardogileen ordezkariak; eta

Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundikoak.

Aurkezpenak bukatuta, eta urteroko ohiturari jarraituz, sagarrondo berri bat landatuko du Izaro Andresek, Sagardoetxeako sagastian. Eta ondoren, Alorrenea sagardotegira mugituko dira denak, bertan izango baita eguneko ekitaldi nagusia.

Eguerdiko 13:30ak aldera, txalapartarien deiari erantzunez, sagar dantza eskainiko dute Alorrenean; eta ondoren, soka dantza egingo dute sagardogileek, Izaro Andres bera dantzaren parte hartzeraren gonbidatuz, eta txotx denboraldi berriko aurreneko kupelara gerturatuz.

### URTARRILAK 15, asteazkena SAGARDO BERRIAREN EGUNA

**11:30-12:30**, Akreditazioen banaketa Sagardoetxean.

**12:00**, Prentsaurrekoa Sagardoetxean. Bertan azalduko dituzte 2019ko uzta-aren ezaugarri nagusiak, sagarraren eta sagardo berriaren ezaugarriak, eta sagardoaren munduko gertaera garrantzitsuenak.

**12:45**, Izaro Andresek sagarrondo bat landatuko du Sagardoetxeako sagastian.

**13:30**, Txalapartarien deiarekin batera, sagar dantza dantzatuko da Alorrenea sagardotegian; eta ondoren, sagardogileek Izaro Andres soka dantzaren parte hartzer

Eguerdiko 13:45etan irekiko du aurreneko kupela hori abeslariak, «Gure Sagardo Berria» oihu eginda, sagardotegi garaia-ri hasiera emateko. Eta aurreneko sagardo tragoen ondotik, estreinako sagardotegi menua dastatuko dute, Alorrenean.

**Irekiera herrikoia, Joseba Barandiaranen eta tabernetan**  
Aurreko urteotan bezala, gainera, Txotx Berri Herrikoia ere egingo dute aurten. Horrela, hasteko, Alorreneako txotx irekiera zuzenean ikusteko aukera izango da herriko tabernetan, 13:45etatik 14:00etara.

Eta arratsaldean, haurrentzako jolasak jarriko dituzte Joseba Barandiaranen, 17:30etatik aurrera; eta Pintxotx musikatuak egingo dute herriko tabernetan, 18:30etatik 20:30etara. **K**

lagunduko dute, aurreneko kupela irekitzeko.

**13:45**, Alorrenea sagardotegian «Gure Sagardo Berria» oihu eginda, aurreneko kupela irekiko du Izaro Andresek, eta horrekin batera, 2020ko txotx denboraldi berriari hasiera emango zaio. Ondoren, denboraldiko sagardotegiko aurreneko menua dastatuko da.

### TXOTX BERRI HERRIKOIA

**13:45-14:00**, Herriko tabernetan Alorreneako txotx irekieraren zuzeneko emanaldia.

**17:00**, Haurrentzako jolasak, Joseba Barandiaran plazan.

**18:30-20:30**, Pintxotx musikatuak, Astigarragako tabernetan.



Karta bat buruan jarri, eta zer azaltzen den asmatu beharko dute jolasean.

## 'Zer daukat buruan?' jolasarekin zita, gaur

Mahai jolasean ariko dira gazteak, gaur arratsaldean, Gaztelekuan. Bihar, berriz, bingoan jokatuko dute.

### GAZTELEKUA ASTEBURUKO PLANA

Oporralditik bueltan, aurreneko astea izan dute Astigarragako haur eta gazteek, ikasgeletan. Baina astean zehar bezala, aisialdirako aukera izango dute Gaztelekuan, asteburuan ere. Ekintza bereziak prestatu dituzte gainera, gaurko zein biharko.

*Zer daukat buruan?* izeneko mahai jolasean ariko dira gaur. Kartekin jokatzen da, baina berezia da. Txanda bakoitzean jokalaria batek, karta askoren artean bat aukeratuko du, baina ikusi gabe; eta zinta moduko batekin, buruan lotuko du. Orduan, berak asmatu beharko du zein karta tokatu zaion, gainerako jokalariei galderak eginez; baina galdera horien erantzuna *bai* edo *ez* izan daiteke soilik.

Bihar, berriz, beste joko batean ariko dira gazteak; hori, ezagunagoa. Izan ere, bingoan jokatuko jarri dute hitzordua, 17:00etatik 20:00etara bitarte. **K**

## Dantza latinoetan, izenematea zabalik

### KULTUR ETXEA IKASTAROA

Dantza latinoen ikastaroa antolatu dute Astigarragako kultur etxean, hasiberrientzat. Urtarrilaren 20an hasiko da, edo taldea osatzen denean, eta astelehenero izango dira saioak, 18:30etatik 20:30etara. Izenematea zabalik dago, kultur etxean bertan: 50 euro Astigarragan errolatutakoek, eta %25 merkeago erretiratu, langabetu eta pentsiodunek. Bikoteka izena emanda, hobe.

## Koordinatzailea etzi, KZgunean

### INFORMATIKA KZGUNEA

Etzi egongo da KZguneko koordinatzailea, Astigarragako lokalean (Tomas Alba kalea, 13), arratsaldeko 16:00etatik 17:45etara.



**BigMat**  
abenduaren 21etik urtarrilaren 31ra  
**Manpara erosita muntaketa doan**  
Ibaiondo Poligonoa, 30 HERNANI  
**943 33 61 86**  
www.ariceta.bigmat.es



# 'Han ez banengo bezala' liburuari buruzkoa, astearteko saioa

Slavenka Drakulic idazlearen lana izango dute hizpide Irakurketa Klubaren urtarrileko saioan. Arratsaldeko 19:30etan izango da, liburutegian.

## LITERATURA IRAKURKETA KLUBA

Datorren asteartean izango du urte berriko aurreneko saioa, hilaren 14an, Astigarragako Irakurketa Klubak. Eta oraingoan, Slavenka Drakulic idazle kroaziarraren *Han ez banengo bezala* liburuari buruz ariko dira, arratsaldeko 19:30etan hasita, liburutegian.

Isabel Etxeberriak gidatuko du saioa, eta doakoa eta irekia izango da partehartzea.

## 1999an idatzitako liburua, 2018an euskeratua

Orain 20 urte idatzi zuen liburu hori Slavenka Drakulicek, *Kao da me nema* izenburupean, serbokroazieraz. Makina bat hizkuntzataraz itzuli dute orduetik, eta 2018an euskeratu zuen Amaia Apalauza Ollok.

2010ean, gainera, pelikula bat egin zuten, liburuan oina-

rrituta. Juanita Wilson zuzendari irlandarraren eskutik, *As if I am not there* izenburua hartu zuen filmak, liburuaren ingelesezko liburuak bezala; baina serbokroazieraz dago egin, eta Mazedonian grabatu zuten. 109 minutuko iraupena dauka.

## Bosniako gerraren garairik gogorrean kokatuta

1992 urtean dago girotuta *Han ez banengo bezala* liburua, eta Bosnian kokatzen da, bertan izan zen gerraren garairik gogorrean. Gerraren alderdi izugarrienetako bat erakusten du liburuak: emakumeen aurkako bortizkeria. S izeneko narratzailearen azaletik jasotzen du kontaketa irakurleak.

Suediako erbestetik ari da S, eta modu gordinean eta apaingaririk gabe, gerrako bere bizipenen kronika egiten du: nola atzeman zuten, nola erretenu-



zuten zoko batean beste emakume batzuekin batera, nola jasan zituen soldaduen sexu-abusuak... Eta, era berean, nola piztu zitzaion bizirik irauteko sena. Esaldi motz eta eragin-korren bitartez, itolarrian darma irakurlea bukaeraino, liburuaren hasierako garaiarekin bat egin arte.

Pasazaite argitaletxeak kaleratutakoa da euskerazko bertsiotia, eta 212 orrialde dauzka. **K**



Aiotzategi kaleko zazpi etxebizitza dira, zozketatuko dituztenak.

## Aiotzategiko etxebizitzaren zozketarako, 20 egun

Urtarrilaren 31ra arte eman daiteke izena, alokairu sozialeko zazpi etxeen zozketan parte hartzeko. Zazpi urterako izango da.

## UDALA ALOKAIRU SOZIALA

Azkeneko asteak dira, Aiotzategi kaleko alokairu sozialeko etxebizitzaren zozketan parte hartu nahi dutenentzat. Izan ere, hogei egun barru, urtarrilaren 31n, bukatuko da epea, zozketarako izena emateko.

Zazpi etxebizitza zozketatuko ditu Astigarragako Udalak, Aiotzategi kaleko laugarrenean:

lau etxebizitza, hiru logelakoak; beste bi, bi logelakoak; eta azkenekoa, bi logelakoa, baina ezintasunen bat dutenentzat egokিতuta dagoena.

Udaletxean eman behar da izena, eta 3.000 eta 39.000 euro bitarteko diru-sarrerak izan behar dituzte eskatzaileek. Hori bai, 25.000 eurotik beherakoek izango dute lehentasuna.

Gaur egun okupatuta daude zazpi etxebizitzak, baina orain daudenei, martxoaren 31n bukatuko zaie kontratua; eta orduetik aurrera, zazpi urterako kontratua sinatuko dute berriek, baina urtero errebisatuko da, baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. **K**

## Udaltzainen ofizialorde lanposturako, deialdia

Urtarrilaren 30era arte aurkeztu daitezke eskaerak, Udaleko Erregistro Telematikoan.

## UDALA LAN ESKAINTZA

Ostegunean argitaratu zuen Astigarragako Udalak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, lanpostu bat betetzeko: udaltzainen ofizialorde postua. Eta atzotik hasita, 15 egun balioduneko epea dago eskaerak aurkezteko, urtarrilaren 30era arte.

Udaleko Erregistro Telematikoan aurkeztu behar dira, honakoekin: jatorrizko administrazioak egindako ziurtagiria, egiaztatuz polizia kidegoko kide dela, ofizialorde kargua duela

eta zerbitzu aktiboan dagoela; NANaren fotokopia; administrazioaren baimena; eta baloratu beharreko merezimenduen egiaztagirien fotokopia.

Administrazio bereziko eskalako funtzionario lanpostua izango da, zerbitzu bereziko azpieskalakoa, C1 sailkapen taldean. 20koa izango da postuaren maila osagarria, eta 18.057,90 euroko osagarri berezia izango du. Hirugarren hizkuntza eskakizuna izango du.

Eskaerak aurkeztutako epea bukatuta, onartutako eta baztertutako pertsonen zerrenda argitaratuko du Udalak, hila beteko epean. Gero, merezimenduen balorazioa egingo da, GAOn zehaztutako puntuazioen arabera; eta elkarriketa pertsonala egingo zaie hautagaiei. **K**



Musikarik ez zen falta izan ostegunean, Bereziartuaren urteurrena ospatzeko.

## Emozioz betetako ospakizuna, Bereziartuaren 150. urteek

Ostegun iluntzean egin zuen sagardotegi astigartarrak, urteurren borobileko ekitaldia.

## BEREZIARTUA 150 URTE

Iluntze berezia izan zen osteguneko, Astigarragako Bereziartua sagardotegiarentzat. Aurten beteko ditu 150 urte, eta ekitaldi berezia egin zuten herenegun, urteurren borobila ospatzeko.

Bere-Aran baserrian elkartuta, familiaren lagunik gertu-

koenak eta instituzioetako ordezkariak errepaso egin zioten sagardotegiaren ibilbideari, 150 historiaren inguruko bideo batekin; eta bertaratutako hainbat emozionatu ziren.

Musika eta bertso artean, omenaldiak eta momentu bereziak izan zituen ospakizunak, eta sagardo berririk ere ez zen

falta izan. «Astigarragari eta Ergobiari balioa eman nahi izan diogu», azaldu zuten Aitor eta Oscar Bereziartua anaiek. Izan ere, Ergobiako Iraberri baserrian jarri zuten martxan sagardotegia, 1870ean, Joxe Mari Bereziartuak eta Ramon Etxebestek. Urte batzuk beranduago mugitu ziren oraingo kokalekura: «azkar esaten da, 150 urte. Eskaintako denborari eta lanari esker gaude hemen. **K**



# Bi artzainen delirioak, arkakuso eta mirari artean, Ama Birjinaren agerraldiarekin

'Benditas' antzezlan eskainiko du 'El mono habitado' konpainiak, datorren larunbatean, Astigarragako kultur etxean. Iluntzeko 20:00etan izango da, eta sarrerak etzi jarriko dituzte salgai, interneten eta kultur etxean.

## KULTUR ETXEA ANTZERKIA

Antzerki saio umoretsua izango da gaur zortzi, datorren larunbatean, kultur etxean. *Benditas* antzezlan eskainiko du *El mono habitado* konpainiak, iluntzeko 20:00etan, gaztelaniaz.


Bi artzain dira protagonistak, eta beraien artaldeekin mendian dabiltzala, Ama Birjina agertuko zaie. Edo hori irudituko zaie beraiei, behintzat... Distira horren aurrean, elkarriketa bat izango dute bi emakumeek, munduko eta zeruko

kontuei buruz. Solasaldi horretan, zenbait kontu aurpegiaratuko dizkiote elkarri, baina elkar ulertzea eta adiskidetasuna ere azaleratuko dira. Bi artzainen delirioak emango ditu aditzera *Benditas* antzezlanak, arkakuso eta mirari artean.

Begoña Martin eta Carmen San Esteban aktoreak igoko dira taula gainera, eta haiek ariko dira bi artzainen paperean, Raul Caminok idatzi eta zuzendutako antzezlanean. 20 bat minutuko iraupena izango du saioak.

**Sarrerak salgai, etzitik aurrera** Adin guztietako ikusleei dago zuzenduta, eta saioa ikusteko sarrerak, etzi jarriko dituzte salgai, astelehenarekin. Kultur etxean erosi ahal izango dira, astelehenetik ostiralera; eta larunbatean bertan, saioa hasi baino ordu bete lehenago. Eta internet bidez ere izango da aukera, ostiralera bitarte, Astigarragako Udalaren web orrian: [www.astigarraga.eus](http://www.astigarraga.eus).

Helduen sarrerak 6 euroan egongo dira salgai; eta adin txikienak, 3 euroan. **K**



Begoña Martin eta Carmen San Esteban ariko dira artzainen paperean.

# Elkarbizitzari buruzko hausnarketa familian, Azkartxin eta Moteltxinekin

'Aioko' txotxongilo saioa eskainiko du Zurrunka Teatro konpainiak, urtarrilaren 19an, 17:00etan hasita kultur etxean. Irla batean, baztertutako bi bizilagun berezi dira protagonistak, eta bidaia fantastikoa izango dute.

## KULTUR ETXEA HAUR ANTZERKIA

Haurrentzako antzerki saioa eskainiko du Zurrunka Teatro konpainiak, datorren igandean, urtarrilaren 19an. *Aioko* ikuskizuna emango dute txotxongiloen bitartez, kultur etxean, arratsaldeko 17:00etan hasita.

Irla bat da Aioko, eta bertako biztanleek, ahaztu egin dute nolako balioa izan dezaketen aniztasunak, naturarekiko errespetuak, eta bizitzaz gozatzeko denbora libreak. Irla alai izan zen garai batean, baina iluntasuna da haien bihotzen jabe, gaur egun. Bertako biztanle dira Azkartxin eta Moteltxin ere, antzezlaneko protagonistak; baina gainerako bizilagunek baztertu egin dituzte.

Bidaia fantastiko batean



Moteltxin da antzezlaneko protagonistetako bat, Azkartxinekin batera.

murgilduko dira biak, eta denez izango du: abenturak, emozioak, sorpresak, jonioak eta argiz betetako itzalak.

«Antzezlan hurbila, atsegina eta dinamikoa da; familia giroan elkarbizitzari buruzko hausnarketa egiteko gonbitea», azaldu du Zurrunka Teatroak.

## Nerea Ariznabarreta eta Eñaut Gorbea antzezleek ahotsa, bi protagonistei

Jakinminez betetako pertsona oso arina da Azkartxin, eta aldiz, nahiko baldarra eta oso motela Moteltxin. Horregatik baztertu dituzte bizilagunek. «Baina lasai, gaur egun gure irla zeharo aldatu da, eta lehen baino alaiagoa eta errespetuz beterikoa da. Ez dizuegu dena aurreratu nahi, hala ere», kontatu dute bi protagonistek. Istorio hori, Aioko irlako biztanleen

elkarbizitza hobetu zuena, kontatuko dute antzezlanean.

55 minutuko iraupena izango du saioak, eta euskeraz eskainiko dute, lau urtetik gorakoei zuzenduta bereziki. Eñaut Gorbea eta Nerea Ariznabarreta antzezleek jarriko diete mugimendua eta ahotsa, Azkartxin eta Moteltxin protagonistei.

## Datorren astean zehar salgai, antzezlanerako sarrerak

*Aioko* antzezlan ikusteko sarrerak, datorren astelehenean jarriko dituzte salgai: internet bidez, [www.astigarraga.eus](http://www.astigarraga.eus) web orrian; edo Astigarragako kultur etxean bertan. Emanaldiaren egunean ere izango da erosteko aukera, saioa hasi baino ordu bete lehenago, kultur etxean.

Haurrentzako sarrerak 2,5 euroan jarriko dituzte salgai, eta helduenak 5 euroan. **K**

# Euskeraren jatorriari buruz asteazkenean, Josu Urrexola

Hitzaldia eskainiko du AEKn, arratsaldeko 19:00etan, Zilegi Eskolen barruan. Astelehenean, berriz, Gurasolagunen saioa izango da, eta eskumutur eta lepoko tailerra asteartean.

## EUSKERA AEK ETA UDALA

Euskeraren inguruko hainbat hitzordu izango dira Astigarragan, datorren astean zehar, Udalak eta AEK euskaltegiak antolatuta. Horrela, asteazkenean, euskeraren jatorriari buruzko hitzaldia eskainiko du Josu Urrexolak, Zilegi Eskolen barruan. AEKren Nabarra Oñatz kaleko lokalean izango da, arratsaldeko 19:00etan, eta doakoa da bertaratzea.

Hori baino lehen, ordea, beste bi saio ere izango dira, Gurasolagun egitasmoan. Astelehenean, kafe baten bueltan elkartuko dira haurrak eta gurasoak, euskeraz hitz egiteko, 16:30etatik 18:30etara. Irekia da,

eta edozein euskera maila duten herritarrak azaldu daitezke; euskeraz hitz egiteko gogoia besterik ez dute eskatzen.

Eta asteartean, tailerra antolatu dute, Gurasolagun egitasmoan hori ere, eskumuturrekoak eta lepokoak egiteko.

## Tratu onei buruzko hitzaldia, hilaren 22an eta 23an

Urtarrilean bertan, beste hitzaldi bat ere antolatu dute, Zilegi Eskolen barruan. Arremanitzeko Maialen Gartzia eskainiko du, tratu onei buruz: urtarrilaren 22an 19:00etan, eta 23an 09:30etan, AEKn. Doakoa da, baina izena eman behar da aurrez, [zilegieskola@ae.k.eus](mailto:zilegieskola@ae.k.eus) helbidean edo kultur etxean. **K**





## Datorren asteartetik aurrera izanen da oinarrizko informatika ikastaroa

Ikastaroan apuntatzeko, Doneztebeko Enplegu Agentziara deitu behar da (948 45 03 09) eta ikastaroa Goizuetako eskolan emanen da.

### GOIZUETA IKASTAROA

Datorren asteartean emango zaio hasiera Nafar Lansarek antolatutako Oinarrizko Informatika ikastaroari, 30 ordukoa izanen da eta Goizuetako eskolan emanen da. Ikastaroa, gutti gotti betti hiru hilabetekoa izanen da, izan ere, martxoaren 3an amaituko baita ikastaroa. Klaseak astearte eta ostegunetan emanen dira, arratsaldeko 17:00etatik 19:00ak arte.

Izen ematea oraindik irekita dago, horretarako, Doneztebeko Enplegu Agentziara deitu behar da telefonoz, 948 45 03 09 zenbakira..

Ikastaroa doan izanen da,

eta parte hartze irekia du. Hala ere, Nafar Lansareko kideek adierazi dute baldintza bakarra lan egiteko adinean egotea izanen dela. «Dena den, langabezian daudenek lehentasuna

**Astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara bitartean izanen dira ikastaroak eta Goizuetako eskolan emanen dira. Eta bi hilabeteko ikastaroa izanen da.**

izanen dute».

### Ikastaroaren helburuak

Ikastaroaren helburu nagusia oinarrizko informatikari buruzko ezagutzak irakastea da, baina horrez gain, beste hainbat helburu ere badaude, hala nola, interneten nabigatzen ikastea, bai ordenagailuan eta baita smartphonean ere, nabigatzeko beldurra kentzea...

Antolatzaileek adierazi dute aurreko urteko ikastaroak izan zuten arrakasta ikusita, aurtengo ere berriro antolatu dutela Nafar Lansarek. Hori dela eta, jendea animatzeko deia eginen dute, informatikako mundua ezagutzeko eta interneten nabigatzeko oinarrizko ezagutzak barneratzeko.

«Parte hartzaile guztiak izanen dira ongi etorriak, beraz, animatu!».



Aurreko igandean, Erregeen kabalgatak bete zituen Goizuetako bazterrak.

## Errege kabalgata, Goizuetan

### GOIZUETA GABONAK

Aurreko igandean, erregeek ere geldialdia egin zuten Goizuetan, bertako txikiak ezagutu eta hainbat goxoki eta opari

banatuz. Kalez kale igaro ziren, eta azkenik frontoian amaitu zuten, hiru errege magoek eserita, Goizuetako umeen eskakizunen zain.

## Hilaren 20an, Beheko Landa bidea konpontzen hasiko dira

Hilaren 20ean hasiko dira pabimentazio lanekin eta Apezetxea Anaiak enpresa kontratatu du Udalak, konponketa lanak egiteko. Martxo amaieran amaituko dituztela adierazi dute Apezetxea Anaiak.

### GOIZUETA OBRAK


Apezetxea Anaiak enpresa izango da Beheko Landa bidea konponduko duena, eta hilaren 20ean hasiko dira pabimentazio lanetan. Apezetxea Anaiak aurreikusi dute, martxoaren amaiera aldera amaituko dutela lana. Hori dela eta, esleipen prezioa 111.622,13 +BEZ eurokoa izango da.

### Orain artekoak konpontzeko

Udalak adierazi du, bide horretan ibili den edonor ohartu izanen dela ze egoera txarrean dagoen lurra. Eta hau aldatu beharra dagoela, «konpontzeko beharra dauka bideak».

Konponketak aspaldi egitekoak baziren ere, hainbat alditan desertu gelditu da lizitazioa (ez da inor aukertu), «eta ondorioz gaur egun zuloz beteta dago gasolinera aurreko bide zatia».

Hala ere, hilaren 20ean hasiko dira pabimentazio lanekin aipatutako Apezetxea Anaiak enpresa, eta martxo amaieran emango dira lanak amaitutzat, gutti gotti betti. **K**



Beheko Landa bidea konponduko dute Apezetxea Anaiak enpresak.



Argazkia: Erran

## Hilaren 14an bilduko da emakumeen taldea

Datorren asteartean, Areso, Goizueta, Arano eta Leitzako emakume taldeak bilduko dira, Leitzako udaletxeko Ludoteka gelan.

### ARANO GOIZUETA

#### EMAKUMEEN TALDEA

Lurralde berriak esploratzeko ataria eskaini nahi diete Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako emakumei, eta horretarako Emakumeen taldea sortu zuten. Aurreko urtean, azaroaren

26an bildu ziren eta datozen zitatik, urte berriarekin batera datoz, hala nola; datorren asteartean, otsailaren 11ean, martxoaren 10ean, apirilaren 28an eta maiatzaren 26an izanen dituzte, hau azkena izanik.

Biltzeko ordua, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara bitartekoa da, eta ez da ordaindu beharrik.

### 44-55 urte bitarteko emakumeentzat

Antolatzaileek adierazi dute, 44-55 urte bitarte dituzten emakumei zuzendutako solasaldiak direla, beraz bertaratzeko deia egin dute. **K**



# Ereñotzuko presa botako dute, «bertako arrainei traba egiten dielako, eta mantenu zaila duelako»

Azken urteotan, Ereñotzuko presak ez du funtzio onuragarrikerik izan, eta adituek adierazi dute gainera, traba handia egiten dietela arrainei. Hori dela eta, Eguzki eta Rios con Vida elkarteek presa botatzeko eskaera egin dute.

## EREÑOTZU PRESA

Ereñotzuko presa, bertako zentral hidroelektrikoari zerbitzua emateko eraiki zen, baina gaur egun, jada, ez du inolako funtzio onuragarrikerik. Hori horrela, presa botatzeko eskaera luzatu dute Eguzki eta Rios con Vida elkarteek, «bertako arrainei traba egiten dietelako».

Hori dela eta, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak bukatutzat jo du Ereñotzuko zentral Hidroelektrikoak Uru-meatik 4000 litro ur segunduko hartzeko orain arte izan duen eskubidea, «azkenean zentrala hiru urtez geldirik egon da, funtzio onuragarrikerik egin gabe». Horrez gain, Eguzki eta Rios con Vida elkarteek adierazi dute, Al-ndundiaren txostenetan irakurri daitekeela, presa hori baterae-

**Eguzki eta Rios con Vida elkarteek adierazi dute, zentralak sarri ez duela errespetatu gutxienezko emari ekologikoa eta izokinen eskala**

zina dela, Natura 2000 Sarean integratuta dagoen Urumeako Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) helburuarekin.

Presa honen eskubidea eskuratu zuen enpresa, Central Hidroelectrica de Renteria izenekoa, ofizialki desagertuta dagoela, «azken urteotan behintzat ez du ondo funtzionatu».

**Hasierako baldintzak, ez dira bete**

Hasieratik, Konfederazio enpresari Uru-meatik 4000 litro segunduko hartzeko eskubidea eman zion, baina bi baldintza betetzen bazituen: lehena, gutxienez 1600 litro segunduko emari ekologikoa errespetatzea, eta bigarrena, izokin eskala egokia erabiltzea. Elkarteek argi utzi dute, «zentralak sarri ez du



Ereñotzuko presa, gaur egun.

**Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak Ereñotzuko presa botatzeko agindua luzatu du, hainbat arrazoi direla medio**

errespetatu gutxienezko emari ekologikoa eta izokinen eskala».

Foru Aldundiak Urumeako arrain eskalen gainean txosten bat egin zuen, eta bertan argi eta garbi adierazten da «Ereñotzuko presak ez diela izokinei behar bezala pasatzen uzten».

Beraz, egitura akatsak eta mantenu zailtasunak, ez ditu

baldintzak betetzen eta Kontserbazio Bereziko Eremuaren helburuak ere urratu egiten ditu. Hori dela eta, eskatzaileek azpimarratu dute «nahikoa da Konfederazioak enpresari eman zaion eskubidea bertan behera uzteko eta presa botatzeko. Gainera, Urumean bioaniztasuna sustatzeko aukera paregabea

da». Oro har, ibai barruko oztopoak kentzea dela helburu nagusietako bat ere, azpimarratu nahi izan dute.

Zentral Hidroelektrikoaren ustiapena bukatu da, eta hamar hilabeteko epean eraisteko proiektua aurkeztu beharko da. Hala ere, erabaki horren aurkako helegitea egon daiteke. **K**

## Aranoko herritarren nondik norakoak, El Tiramillas programan

Duela aste bete, Navarra Televisiónen, Arano izan zen protagonista, El Tiramillas programan.

### ARANO NAVARRA TELEVISIÓN

Aurreko ostegunean, Arano herria eta bertako herritarrak agertu ziren Navarra Televisiónen emititutako El Tiramillas programan. Bi zatitan daude banatuta bideoak, biak 26 minutukoak izanik, gutxi gora behera.

10-11 lagunek hartu zuten parte, eta beraien egunerokotasun eta istorio zaharrak kontatu, eta Aranoko txoko ederrenak ere erakusten dituzte. Herritarren artean parte hartu zutenak; Aurora Perurena, Javier

Ansa, Martín Legarreta, Ignacia Zabala, Jose Antonio Ansa, Jo-xean Ruiz, Ana Mari Ansa, Peio Ansa, Nerea Ansa eta Oihana Kalparsoro.

**El Tiramillas, Nafarroko herri txikietatik**

Navarra Televisiónen bere baitan hainbat programa dauzka, eta haien artean; El Tiramillas ezaguna da. Nafarroako herri txikietara bisitak egin eta bertako kontuak ezagutzen dituzte, bertako jendearekin tratua egin, eta herri txikietan ederki bizi di-



Eskuinekoa, Aurora Perurena da, Aranoko herritarra, eta El Tiramillas programan hartu zuen parte. Argazkia: Natv.es

rela ere kronopobaten dute.

**Ikusgai, webgunean**

Oraindik ikusi ez duenarentzat aukera dago, Navarra Televisiónen web gunean ikusteko.

Ntv webgunean, *A la carta* sailean, El Tiramillas. emen linka: <https://labur.eus/vswMz>. **K**





Santo Tomas Lizeoaren kontra jokatu zuen azkeneko etxean, Mundarrok. Derbia izango da gaur, bertan.

## Urtea hasteko derbia Astigarragan, Mundarroko eta Hernaniko mutilek

Gaur arratsaldeko 18:00etan jokatuko dute, kiroldegian. Mundarroko neskak, berriz, Saski Axularren kantxan ariko dira, ordu berean.

### ASTIGARRAGA-HERNANI SASKIBALOA

Urte bukaera txarra ahaztu eta berriari ondo ekiteko asmoz, gaur bueltatuko dira lehiara, mutilen talde nagusiak, Gipuzkoako 1go mailan. Eta partidu berezienarekin ekingo diote, gainera: derbia jokatuko dute, gaur arratsaldeko 18:00etan hasita, Astigarragan.

Ez dira denboraldiko unerik gozoenean iritsiko, Mundarro

eta Hernani. Azkeneko partidua irabazi zuten hernaniarrek, baina aurreko seiak, ordea, galdu. Astigarrarek, berriz, azkeneko hiru partiduak galdu dituzte. Hori horrela, launa garaipenekin daude berdinduta, 11garren eta 12garren; eta beheko postuetatik ihes egiteko beharra daukate biek.

Oso bestelako egoera daukate Mundarroko neskek, Gipuzkoako bigarren mailan. Zortzi par-

tidutik sei irabazita, hirugarren postuan daude; eta 2019ko azkeneko partiduan 45-6 irabazi ondoren, gogotsu ekingo diote urte berriari. Saski Axular taldearen kantxan ariko dira gaur, arratsaldeko 18:00etan, Donostiako Pio Baroja kiroldegian. Bi garai-penekin daude donostiarrak.

Gainerako mailetan ere, asteburu honetan bueltatuko dira lehiara, Mundarro eta Hernani. Mutilen Gipuzkoako hirugarren mailan, Lasarte-Orian ariko da Hernani, gaur 18:00etan, Ostadarren kontra; eta Alegian Mundarro, gaur 17:00etan, Elorri Aldapa taldearen kontra. **K**

## Mutilen talde nagusiak etxean, eta Hernaniko neskak Erandion

Gaur arratsaldean ariko da Mundarro Zarkumendegin, eta bihar goizean Zubipen Hernaniko mutil erregionalak. Euskal Ligako neskak, bihar.

### ASTIGARRAGA-HERNANI FUTBOLA

Ez zuten modurik onenean hasi urtea, joan den asteburuan, bai-larako futbol talde nagusiek. Eta horri buelta emateko asmoz, etxean ariko dira oraingoan, mutilen talde nagusiak. Hernaniko neskek, aldiz, kanpoan jokatuko dute berriro. Erandioko San Lorenzo zelaian ariko dira, bihar arratsaldeko 18:30etan,



Erandioren kontra jokatu du Hernanik, nesken Euskal Ligan.

Erandioko Betiko Neskak taldearen kontra.

Ohorezko Erregional mailan, berriz, Zubipen jokatuko dute mutil txuri-berdeek, bihar arratsaldeko 16:30etan, Anaitasunaren kontra. Eta Zubipen ariko

dira Liga Nazionalako mutil jubenilak ere, bihar eguerdiko 12:00etan, Danok Baten kontra.

Gaur jokatu duena Mundarro da, mutilen Erregional Preferenteetan: Roteta hartuko du, 15:30etan Zarkumendegin. **K**



Ereñotzuko bolatokia jokatu da Euskadiko Txapelketa, aurten.

## Bihar hasiko da bola denboraldia, Legazpian

Aurreneko tiraldia izango dute Taldekako Txapelketan, Ur-Miak, CD Hernanik eta Elur Txorik, goizean zein arratsaldean.

### EREÑOTZU-HERNANI BOLA

Martxan jartzeko prest dira, Hernaniko eta Ereñotzuko bolariak. Bihar bertan hasiko dute denboraldia, eta Taldekako Txapelketarekin ekingo diote.

Hernaniko Elur Txorik eta CD Hernanik, eta Ereñotzuko Ur-Miak hartuko dute parte, eta A multzoan ariko dira hiruek, Behar Zana, Danantzako eta Ategorrietarekin batera. Legazpian dute estreinako tiraldia bihar, 09:00etatik 11:00etara eta 16:30etatik 17:30etara. Bigarrena hilaren 19an izango da, Añorgan, eta multzoko talde onenek,

finala jokatu dute urtarrilaren 25ean, Olaberrian, B multzoko onenekin.

Hortik aurrera, Binakako Txapelketari ekingo diote, hiru elkartetako bolariak; eta Hernanin izango dute aurreneko tiraldia, urtarrilaren 26an. Hiru tiraldi eta Altzan jokatu den finala izango dira, Binakakoaren kasuan.

### Euskadiko Txapelketa Ereñotzun, ekainaren 6an

Banakako txapelketei, berriz, otsailaren 16an ekingo diete. Lehendakari Txapelketa jokatu da aurrena, bost tiralditan; Gipuzkoako Kopa gero, beste bost tiralditan; eta Gipuzkoako Txapelketa ondoren, maiatzaren 16an Zerainen.

Baina urteko zitarik garrantzitsuena, Ereñotzun izango da aurten: Euskadiko Txapelketa jokatu da, ekainaren 6an. **K**

## Navarmutilak taldearen kantxan bihar, Hernani

Iruñean jokatu dute Euskal Ligakoa, mutil nagusiek; eta Urretxun daukate zita neskek gaur, Gipuzkoako Txapelketa hasteko.

### HERNANI BOLEIBOLA

Batzuek bukatu, eta besteek hasi. Euskal Ligako aurreneko itzuliko azkeneko jardunaldia jokatu dute Hernaniko mutil nagusiek, asteburu honetan; eta aldiz, estreinakoa izango dute Gipuzkoako Txapelketan, neska nagusiek.

Iruñean ariko dira mutilak, bihar goizeko 11:30etan, Navarmutilak taldearen kontra. Hiru porrota segidan jaso ondoren, garaipen batekin itxi zuten urtea hernaniarrek; eta halaxe hasi nahi dute berria ere, sailkapenean nabarmen beherago dagoen talde baten kontra.

Neskak, berriz, Urretxun ariko dira gaur, 14:00etan, Goierri S taldearen kontra. Irekiera Txapelketa porrotarik jaso gabe bukatu ondoren, Gipuzkoako Txapelketa hasiko dute orain. Zortzi talde ariko dira, Irekiera Txapelketako berberak, eta zazpi partidu izango ditu bakoitzak. **K**



# Hernanik bigarren garaipena jarraian lortu nahi du bihar, Cienciasen aurka Landaren

Etxean jokatuko du 12:00etatik aurrera, eta irabaziz gero azken postutik irteteko edo azkenaurrenarekin berdintzeko aukerak dauzka.

## HERNANI ERRUGBIA

Hernanik zita garrantzitsua du bihar Landaren, 12:00etatik aurrera. Bigarren itzulia hasiko du eta urteko lehenengo partidua jokatuko du Ciencias Cajasolen aurka. Gabonetako geldialdia eta gero ohorezko errugbia berri ere bueltan da eta Hernanik urtea, amaitu bezala hasi nahi du, garaipenarekin. Zapore gozoarekin joan ziren hernaniarrak Gabonetako oportetara, Donostian, Bartzelonari azken

segunduan irabazi ondoren.

Garaipen horrek taldea indarberritu du eta bihar aukera du denboraldiko bigarren garaipena lortzeko. Aurrean arerio ezaguna izango dute, Sevillako Ciencias Cajasol. Andaluziarrak azken urteetan igogailua izan dira Ohorezko Mailatik Ohorezko B mailen artean eta aurtengo denboraldian berreskuratu dute gorengoa.

Gainera, talde sendoa osatu du, eta harrobiko taldea izate-tik, fitxaketek garrantzia gehia-

go duten taldea izatera pasa da talde sevillarra.

Hori emaitzetan nabaritu dute eta aurreneko itzulia oso ongi amaitu dute 20 punturekin. Zortzigarren daude kokatuta azkeneko postuetatik urrun, baina baita play off postuetatik ere. Hernanirentzat partidua garrantzitsuagoa da. Irabaziz gero, gutxienez hamaika puntu batuko lituzke; horiek dira Cisnerosek dauzkan puntuak, eta haiek Alcobendas liderraren aurka jokatu behar dute. **K**



Mikel Perez lesionatuta egon da aurtengo partidu batzuetan.

## ERRUGBIA

MUT. OHOREZKO MAILA	Hernani-Ciencias	Landaren	Bihar 12:00
NSK. EUSKAL LIGA	Landarbaso-La Unica	Landaren	Gaur 16:00
MUT. 23 URTEZ AZPITIK	Hernani-Ciencias	Aieten	Bihar 12:00
MUT. KADETEAK (SUB 18)	Gaztedi-Hernani Atletico	Lakuan	Gaur 10:15
MUT. KADETEAK (SUB 16)	Gaztedi-Hernani Atletico	Lakuan	Gaur 11:30

## FUTBOLA

NSK. EUSKAL LIGA	Erandio-Hernani	San Lorenzon	Bihar 18:30
MUT. OHOREZKO ERREG.	Hernani-Anaitasuna	Zubipen	Bihar 16:30
NSK. OHOREZKO ERREG.	Ostadar-Hernani	Michelinen	Gaur 13:00
MUT. ERREG. PREF.	Mundarro-Roteta	Zarkumendegin	Gaur 15:30
MUT. ERREG. PREF.	Sanpedrotarra-Hernani	Trintxerren	Gaur 15:30
MUT. ERREG. 1GO MAILA	Lengokoak-Mundarro	Cesar Beniton	Gaur 16:00
MUT. JUB. LIGA NAZ.	Hernani-Danok Bat B	Zubipen	Bihar 12:00
MUT. JUB. OHOR. MAILA	Real Union-Mundarro	Galen	Bihar 10:00
MUT. JUB. OHOR. MAILA	Santo Tomas Lizeoa-Hernani	Berion	Gaur 19:10
MUT. JUB. 1GO MAILA	Mundarro-Lagun Onak	Zarkumendegin	Bihar 11:30
MUT. JUB. 1GO MAILA	Sporting Herrera-Hernani	Herreran	Gaur 15:30
NSK. KAD. OHOR. MAILA	Zumaia-Hernani	Aita Marin	Gaur 12:15
MUT. KAD. OHOR. MAILA	Mundarro-Oiartzun	Zarkumendegin	Gaur 11:30
MUT. KAD. OHOR. MAILA	Hernani-Real Union	Zubipen	Gaur 12:00
MUT. KAD. 1GO MAILA	Urnieta B-Mundarro	Urnietan	Gaur 12:00
MUT. KAD. 1GO MAILA	Intxurre-Hernani	Elorriñ	Gaur 11:30
NSK. INF. OHOR. MAILA	Hernani-Oiartzun	Zubipen	Bihar 09:45
MUT. INF. OHOR. MAILA	Beti Ona-Mundarro	Beraunen	Gaur 17:00
MUT. INF. OHOR. MAILA	Oiartzun-Hernani	Karla Lekuonan	Gaur 13:00
MUT. INF. 1GO MAILA	Mundarro-Sporting Herrera	Zarkumendegin	Gaur 09:30
MUT. INF. 1GO MAILA	Hernani-Danena	Zubipen	Gaur 10:00
MUT. INF. TXIKIAK	Hondarribia-Hernani	Ondartzan	Gaur 10:00

## BOLEIBOLA

MUT. EUSKADIKO LIGA	Navarmutilak-Hernani	Iruñean	Bihar 11:30
NSK. GIPUZKOAKO LIGA	Goierri S-Hernani	Urrethun	Gaur 14:00
NSK. KADETEAK	Hernani 1-Fortuna 1	Kiroldegian	Gaur 12:30
NSK. KADETEAK	Hernani 2-Lizardi	Kiroldegian	Gaur 12:30
NSK. INFANTILAK	Laskorain-Hernani 1	Tolosan	Gaur 11:30
NSK. INFANTILAK	Hernani 2-Lizardi	Kiroldegian	Gaur 12:30

## ESKUBALOIA

NSK. JUBENILAK	Pulpo-Mundarro	Zumaian	Bihar 12:30
NSK. JUBENILAK	Hernani-Egia	Kiroldegian	Gaur 17:00
MUT. JUBENILAK	Hernani-Egia 3	Kiroldegian	Gaur 18:30
NSK. KADETEAK	Hernani-Mutriku	Kiroldegian	Gaur 11:30
MUT. KADETEAK	Hernani-Bidasoa	Kiroldegian	Bihar 12:00
MUT. KADETEAK	Hernani-Arrasate	Kiroldegian	Gaur 16:00
NSK. INFANTILAK	Hernani-Irauli	Kiroldegian	Bihar 10:15
MUT. INFANTILAK	Hernani-Ereintza	Kiroldegian	Gaur 10:00
MUT. INFANTILAK	Hernani-Leizaran	Kiroldegian	Bihar 10:15

## SASKIBALOIA

MUT. GIPUZ. 1GO MAILA	Mundarro-Hernani	Kiroldegian	Gaur 18:00
NSK. GIPUZ. 2. MAILA	Saski Axular-Mundarro	Pio Barojan	Gaur 18:00
MUT. GIPUZ. 3. MAILA	Ostadar-Hernani	Lasarte-Orian	Gaur 18:00
MUT. GIPUZ. 3. MAILA	Elorri Aldapa-Mundarro	Alegian	Gaur 17:00
NSK. JUNIORRAK	Mundarro-A Atletico SS	Kiroldegian	Gaur 11:30
MUT. KADETEAK	Bergara Soraluze-Hernani	Bergaran	Gaur 12:30
MUT. KADETEAK	Mundarro 1-Easo Arano	Kiroldegian	Gaur 11:30
MUT. KADETEAK	Zast Orio-Mundarro 2	Karelan	Bihar 09:30
MUT. INFANTILAK	Larramendi-Hernani	Aieten	Gaur 09:00
MUT. INFANTILAK	Oiarso Haundi-Mundarro	Galtzarabordan	Bihar 09:45

## PALA

NSK. NAGUSIAK	Oberena/Irazustabarrena-Arrieta	Iruñean	Gaur 17:00
MUT. NAGUSIAK	Tolosa/Mundarro	Beotibarren	Gaur 12:00
NSK. JUBENILAK	Mazizior-Urdangarin/Gure Pilota	Abetxukon	Gaur 16:00
NSK. JUBENILAK	Hernani 3/Hernani 2	Hernanin	Gaur 15:00
NSK. JUBENILAK	Zumaia/Hernani 1	Aitzurin	Gaur 10:00
NSK. KADETEAK	Iriondo-Barrenetxea-Kerejeta/Elorrio/Ataun	Hernanin	Gaur 17:00

## ESKU PELOTA

MUT. NAGUSIAK	Buruzgain/Ojuel-Labaka	Ultzaman	Gaur 13:00
MUT. INFANTILAK	Pascual-Azpeitia/Alde Zaharra	Hernanin	Gaur 15:00
MUT. INFANTILAK	Moral-Urrutia/Alde Zaharra	Hernanin	Gaur 15:30
MUT. INFANTILAK	Zumaia/Mundarro	Aitzurin	Gaur 18:00
MUT. NAG. TRINK.	Urnieta/Unai Alvarez	Iruran	Gaur 19:00
MUT. JUB. TRINK.	Oinatz Insausti/Behar Zana	Iruran	Gaur 10:30
MUT. JUB. TRINK.	Oiarpe/Mikel Lasa	Iruran	Gaur 11:00
MUT. KAD. TRINK.	Behar Zana/Mattin Arluziaga	Iruran	Gaur 09:30
MUT. KAD. TRINK.	Behar Zana/Unai Etxarri	Iruran	Gaur 10:00
ZANGOZAKO TXAP.	Xabier Apaolaza/Zugarralde	Zangozan	Bihar 12:30
IRURITAKO TXAP.	Iturbe-Txintxurreta/Erreka	Iruritan	Bihar 09:30
LESAKAKO TXAP.	Uitzi-Oiartzabal/Erreka	Lesakan	Bihar 10:00

## ERREMONTEA

1GO PARTIDUA	Urrutia II-Zubiri/Barricart-Garces	Galarretan	Gaur 16:00
2. PARTIDUA	Juanenea-Barrenetxea IV/Urriza-Agirrezabala	Galarretan	Gaur 16:00
3. PARTIDUA	Seguroa-Ion/Matxin III-Azpiroz	Galarretan	Gaur 16:00
4. PARTIDUA	Goikoetxea V-Larrañaga/Aldabe-Arruarte	Galarretan	Gaur 16:00

## TXIRRINDULARITZA

PISTAKO TXIRRIND.	Gipuzkoako Txapelketa	Donostian	Bihar 09:00
-------------------	-----------------------	-----------	-------------

## BOLA

TALDEKAKO TXAP.	A multzoko aurreneko tiraldia	Legazpian	Bihar 09:00
-----------------	-------------------------------	-----------	-------------



**TONTORREZ TONTOR** Mendiriz Mendiko kideek hilabete egingo duten irteera baten inguruko xehetasunez osatutako atala



# Urteko lehenengo ibilaldiak Iparraldean Ziburumendira eramango ditu mendizaleak

Urtarrilaren 19an egingo da eta 2020a hasteko bi orduko ibilaldia izango da zailtasun haundirik gabekoa. Larrun ondoan gailur xume bat da eta ez da jende asko hurbiltzen bertara nahiz eta bista izugarriak eduki bertatik.

**MENDIRIZ MENDI** TONTORREZ TONTOR

Helduentzako urteko lehenengo ibilaldia Ziburumendira antolatuko du Mendiriz Mendiko bihar zortzi, urtarrilaren 19an, San Sebastian bezpera egunez. Hasi polita etxetik gertu eta zailtasun haundirik gabea.

Ziburumendi Larrun mendiguneko gailur xume bat da. Itsasotik hasi eta Pirinioetako lehen gailur aipagarria da. Justu alboan duen Larrun mendia duen erakarpen haundiatatik ia inor ez da ohartzen Ziburumendiko gailurra hor dagoela, baina hori dela eta jende gutxi hurbiltzen da bertara eta lasaitasunez gozatzen den mendia da.

Nahiz eta gailur txikia izan, bertatik gozatzen diren bistak izugarriak dira. Hego-ekialdera Larrun, hego aldera Mendaur, mendebaldera Aiako Harria, ipar-mendebaldera Ibardineko lepoa eta ipar aldera Lapurdiko eta Landetako landazabalak. Paisai guztia etxe eta baserri zuriz josia. Eta guzti horri ginda jartzeko, Donibane Lohitzuneko

## GR10 ZIBURUMENDI

**Non kokatzen da:** Lapurdin

**Datu Interesgarriak:**

Luzera: 5 kilometro.

Denbora: 2 ordu.

Desnibela: 350 metro inguru gorantz eta beherantz.

**Zailtasuna:** Zailtasun berezirik gabekoa. Ibilbide luzea.

**Beharrezko materiala:** Mendiko material arrunta.

**Mendiriz Mendik** urtarrilaren 19an egingo du irteera hau. Goizeko 08:30etan Atsegindegitik.

**Izenematea:** Informazio gehiago elkarteko bulegotik (Iturregi plaza) pasa astelehen, ostegun edo ostiralean 20:00etatik 21:00etara. Izena emateko epea urtarrilaren 16an amaituko da. Bazkideek 10 euro, ez direnak bazkide 13.

**Oharra:** Irteera egun erdikoa da.

badia deigarria aurrean dugula, Kantauri itsaso urdina ondoan.

**Jaitsiera kontrako mendi-hegaletik egingo da** Trabaniatik hasi eta hego aldera doan errepidea hartu behar da.



Ziburumendiko tontorra atzean itsasoa dagoelarik.

Ziburumendiko gailurra zerumugan bereizten da. GR10 ibilbideari jarraituz Mantto Baita landetxera iritsiko gara.

Errekatxo bat ezkerrean utziz, aurrera jarraitu behar da. Basotik irteterakoan Larrun mendiaren profil deigarriak gure atenzioa deituko du. Bideari jarraitu behar zaio Des-karga lepora iritsi arte.

Lepotik begiratuta Ziburumendi gure eskuinean (ipar aldean) geratzen da. Ezker aldetik Larrunera joateko aukera dago. Bi aldapatxo gainditu eta gailu-

rean gara. Amabirjina eta gurutzea gailurrean.

**Jaitsiera kontrako bidetik egingo da**

Jaitsiera kontrako mendi-hegaletik egingo dugu. Zig-zag eginez bideak behera egiten du. Borda baten alboetik pasatu eta igotzerakoan erabili dugun bidera iritsi baino lehen, Larrun mendiari azken begiratu emateko aukera izango dugu. Igotzeko bidera iristerakoan, bideari jarraituz berehala gara ibilbidearen amaieran. **K**



Ziburumendi eta atzean Larrun.

# Hernaniko igerilariak Gipuzkoako Taldeen Kopan ariko dira gaur eta bihar Irungo Azken Portun

Hernaniko taldea B mailan ariko da eta beste taldeak ordezkatzeko ere ariko dira herriko beste hainbat igerilari. Enaitz Goñi Euskadiko junior eta infantil selekziara deitua izan da otsailerako.

**HERNANI** IGERIKETA

Urteko lehenengo igeriketa txapelketa gaur eta bihar artean jokatu da eta bertan igerilari hernaniarrak ez dira faltako. Irungo Azken Portu kiroldegiko igerilekuan Gipuzkoako Taldeen Kopa antolatuko da bi egunetako goiz eta arratsaldean.

A eta B mailatan jokatu da txapelketa eta taldeak bi maila horietan banatzen dira. Hernaniarrak B mailan daude kokatuak, baina A mailan, bes-

te taldeetan, igeri egiten duen hernaniarrik ere bada. Hernani taldearen helburua igerilariak euren markak hobetzea da eta beste txapelketetarako minimak lortzea ere bai. Goizeko jardunaldiak 10:00etan hasiko dira eta arratsaldekoak 16:00etan.


**Enaitz Goñi Las Palmasera selekzioarekin Espainiako Autonomi Txapelketa**

Irunen, Enaitz Goñi igerilari hernaniarra, Fortuna taldearekin ariko da eta asteartean

Euskadiko infantil mailako selekzioak hautatu zuen. Euskadi Espainiako Autonomien arteko txapelketa ariko da, junior eta infantil mailatan, datorren otsailaren 14etik 16ra Kanaria Handian, Las Palmas hiriburuan.

Bertan, EAeko 25 igerilari izan dira deitua, 12 junior eta 13 infantil, neska eta mutil, guztira. Goñi hiru frogetarako izendatu dute 400 estiloak, 400 libre eta 1.500 libre eta Gipuzkoatik doan infantil bakarra da, beste hamabiak bizkaitarrak dira. Juniorretan sei gipuzkoar, lau arabar eta bi bizkaitar daude Euskadiko selekzioan.

Nafarrek bere selekzioa osatzen du txapelketa garrantzitsu honetan. Aurreko urtean Euskadi zortzigarren sailkatu zen. **K**



Hernani igeriketa taldea Irunen ariko da gaur eta bihar.





Urko eta Telmo Semperena (ezkerretik hirugarrena eta seigarrena) Bordelen, selekziokideekin. Argazkia: 'trackpiste.com'

## Urko Semperena bikain Bordelen, eta Mangas eta Muñoz Donostian

Laugarren sailkatu zen astigartarra, Neguko Txapelketako omniumean; eta aurre-aurrean ibili ziren bi hernaniarrak ere: Naia Mangas laugarren tempoan eta danesan, eta Ekhi Muñoz bigarren puntuazioan.

**ASTIGARRAGA-HERNANI**  
TXIRRINDULARITZA

Bi hitzordu izan zituzten txirrindulari hernaniar eta astigartarrek, joan den asteburuan, pistako denboraldiarekin. Bate-tik, Bordelen izan ziren Urko eta Telmo Semperena astigartarrak, Gipuzkoako selekzioarekin, Neguko Txapelketa lehiatzen. Eta bestetik, Bio Racer Sariarekin jarraitu zuten Donostiako belodromoan, gainerako gehienek.

Anaia zaharrenak ekarri zuen emaitzarik onena, Bordetik. Laugarren sailkatu zen, 23 urtez azpikoetan, lau probako omniumean. Scratch proba irabazi zuen, hasteko; eta tempoan bosgarren eta eliminazioan laugarren eginda, sailkapeneko hirugarren postuan iritsi zen azkeneko probara, puntuaziora. Baina azkenean, aurrea hartu zioten Pierre Crema eta Vincent Crabos frantziarrek, 123 eta 121 punturekin, berak 114 lortu zi-

tuen bitartean. Nicolas Hamon nagusitu zen, 151rekin.

Telmo Semperena, berriz, bederatzigarren izan zen junior mailan, 78 punturekin. Eliminazioan lortutako laugarren postua izan zen bere onena, eta seigarren iritsi zen azkeneko probara, baina ez zen ondo aritu puntuazioan.

**Naia Mangas erregular, berriro** Donostiako belodromoan aritu ziren bailarako beste zortzi txirrindulari. Nesketan, Bio Racer Sariako hirugarren postuari eutsi dio Naia Mangas hernaniarrak, beste behin oso erregular arituta. Laugarren izan zen tempo proban, aurrea; eta puntuazioan hamargarren egin ondoren, beste laugarren postu batekin bukatu zuen igandeko jardunaldia, danesan. Maddi Arizmendik, berriz, ezin izan zuen punturik lortu: 21garren izan zen tempoan, eta 33garren puntuazioan.

Mutil kadeteetan izan zen partehartze haundiena, Ekhi Muñoz, Aner Zilbeti, Unax Urretabizkaia eta Markel Rodriguez hernaniarrekin, eta Tasio Semperena astigartarrarekin. Urretabizkaia izan zen denetan onena eliminazioan, 13garren, baina punturik lortu gabe. 16garren izan zen Muñoz. Baina gero, puntuazioan, bigarren postua lortu zuen Muñozek, eta 12 puntu eskuratuta, sailkapen nagusiko bederatzigarren postura igo da; justu Urretabizkaia-aren aurretik. Puntuazioan 11garren izan zen Urretabizkaia bera, eta 12garren Zilbeti.

Eta azkenik, mutil juniorren kategorian, Iker Iriondo hernaniarrak soilik hartu zuen parte: 20garren izan zen scratchean, eta 17garren puntuazioan.

Bihar, berriz, zita garrantzitsua dute denek: Gipuzkoako Txapelketa izango dute jokoan, goizeko 09:00etatik 14:00etara, Donostiako belodromoan. **K**



Euskal Herriko Ligan ariko dira Iriondo, Barrenetxea, Kerejeta eta Mazizior.

## Torneo berriak martxan, bailarako palistentzat

Euskal Herriko Ligari eta Udaberriko Txapelketari ekingo diete asteburuan.

**ASTIGARRAGA-HERNANI** PALA

Bi txapelketa berri hasiko dituzte bailarako palistek, asteburu honetan: Udaberriko Txapelketa eta Euskal Herriko Liga.

Gipuzkoa mailan jokatu dute Udaberrikoa, Hernaniko eta Astigarragako neska-mutilek. Mundarroko mutil nagusiek Tolosako Beotibarren jokatu dute gaur, 12:00etan, Tolosaren kontra. Eta neska jubeniletan, Hernaniko bi talde elkarren kontra ariko dira herrian, gaur 15:00etan; eta Zumaiaiko Aitzurin ariko da hirugarren talde bat, goizeko 10:00etan, Zumaia-

ren kontra.

Euskal Herriko Ligan, berriz, neska nagusiak, jubenilak eta kadeteak ariko dira. Nagusietan, Iruñean jokatu dute gaur Amaia Irazustabarrenak eta Ariane Arrietak, 17:00etan, Oberearen kontra. Eta jubenil zein kadeteek, sistema berezia izango dute: ligaxka eta kanporaketak jokatu dituzte, txapelketako jardunaldi bakoitzean.

Aurrenekoa Arabako Abetxurikon jokatu dute Enara Mazizior eta Garazi Urdangarin jubenilek, gaur 16:00etan; eta Gure Pilotaren kontra ekingo diote, final laurdenetan. Eta Maddi Iriondo, Alaitz Barrenetxea eta Ane Kerejeta kadeteek, berriz, Hernanin hasiko dute txapelketa, gaur 17:00etan; ligaxka eta finala jokatu dituzte, Elorrio eta Ataunekin batera. **K**

## Iruñean eta Zumaian, Salaberria eta Olaizola

Bigarren itzulia hasiko dute, Labriten goizuetar gazteak, gaur 17:45etan; eta Aitzurin beteranoak, bihar 17:00etan.

**GOIZUETA-HERNANI** ESKU PELOTA

Asteburu honetan ekingo diote Iker Salaberria eta Aimar Olaizola goizuetarrek, binakako txapelketaren bigarren itzulari.

Iruñeako Labriten jokatu du Salaberriak gaur 17:45etan, Garmendiarekin, Egiuren V eta

Erostarberen kontra. Zazpi partidutik bi irabazita, bigarren itzuli borobila osatu behar dute, aurrera egin nahi badute.

Olaizola, aldiz, Zumaiko Aitzurin ariko da bihar, 17:00etan. Urrutikoetxea lagun, Bengoetxea VI eta Mariezkurrena Iren kontra ariko da. Egoera berean dago bera, zazpitik bi irabazita.

Afizionatuen mailan, berriz, Gipuzkoako Trinkete Txapelketaren semifinalak jokatu dituzte gaur, Iruran, bost hernaniarrek: Mattin Arluziaga, Unai Etxarri, Oinatz Insausti, Mikel Lasa eta Unai Alvarez. **K**

### IRAGARKI MERKEAK

Urnietako fruteri baterako langilea behar da. Deitu: 669 839 937

**LOGIKALINE** enpresak **TELEOPERADORA LANPOSTU** bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta katalana eskatzen dira. Lanaldi osoa.

Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

#### EGURALDIA

#### GAUR



Lainoen arrastoak geratuko dira gaur goizaldean oraindik, bereziki kostaldean, eta baliteke euri pixka bat egitea ere. Baina eguerditik aurrera, giro eguzkitua nagusituko da. **Min.6° / Max.12°**

#### BIHAR



Giro eguzkitsuarekin jarraituko dugu bihar. Goizean goiz laino batzuk agertuko dira, eta izotza botako du. Baina orokorrean, garbi egongo da zerua. Haizea aldakor eta ahul ibiliko da. **Min.4° / Max.12°**

(euskalmet)

#### TELEFONO ZENBAKIAK

**TAXIAK** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAIINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

#### FARMAZIAK

**Eguez: Tena** Nagusia, 16 (Astigarraga) **943 543718** **Gauz: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**  
**Goizueta:** Nagusia 64 948 514353





## Mundu ezberdinetako bi tximeleta, laguntasunak elkartuta

'Tximeletak hondartzan' liburua argitaratu berri du Maixa Zugastik, Hernanin bizi den tolosarrak. Inmakulada ikastetxean da irakasle, eta bertako ikasleen istorioetan oinarrituta idatzi du.

**HERNANI** MAIXA ZUGASTI

Hernanitik Zarautzera tximeleten moduan, hegan, eraman du irakurlea Maixa Zugasti Hernanin bizi den tolosarrak, lan berrian. *Tximeletak hondartzan* gaztetxoentzako ipuinak, Hernaniko Inmakulada ikastetxeko istorioak ditu oinarri, eta Zarauzko parajeak, aldiz, kokaleku.

Azkeneko lana argitaratu aurretik, tximeleten moduan egin du bidaia berak ere. Hiru lan argitaratu ditu, hiru urtetan: *L.A.A* argitaratu zuen 2017an; *Ahotsak eta itzalak*, 2018an; eta *Tximeletak hondartzan* lanarekin bukatu zuen 2019an.

Azken honekin, gainera, beste hegaldi bat ere hasi du, gazte-xoen literaturarantz.

### Adela eta Ane, protagonista

Hori guztia kontatzeko, bi neskatza ditu Zugastik protagonistatzat, Adela eta Ane: «bi mundu elkartzen dira», dio. Adela islatzen du bat: «nire ikasle baten [Inmakulada ikastetxean da irakasle] bizimodua daukan neska bat da; harekin, pobrezia islatu nahi izan dut», azaltzen du. Errealitate «oso gogorra» bizitzen duen neskatza da Adela, Zugastiren ikasle batzuen antzerakoa: «Duela urte batzuk tutoregintzan neska bat eduki nuen Adela bezala bizi zena, amarekin; ohe berean lo egiten zuten eta etxebizitza beste familia batekin elkarbanatu behar zuten», onartzen du. Adelaren pertsonaiaren gain hori bakarrik ez, beste istorio bat ere lotu nahi izan du: «beste behin, senide batzuk izan nituen, aitak

abandonatu zituen. Amak, borondate onez, aitaren istorio bat kontatu zien, asmatutakoa; bere horretan geratu zen, baina ume horiek idealizatzen joan ziren ez zegoen pertsona hori». Eta halako istorioek, askotan, eraginak izaten dituztela dio: «nerabezaroran arazoa da, askotan, idealizatu egiten dutela atzean utzi duten errealitate hori, eta ondorioz, beren herrialdeetara itzuli egin nahi dutela».

Era berean, Ane errealitate «alaiago» baten isla da. Bere istorioak margolan batzuk ditu abiapuntu, Carmen Mirandarenak, hain justu. Duela urte batzuk Ikeder agentziara jo zuen Maixa Zugastik: «bertakoa da Leopoldo Zugaza, eta han ezagutu nituen bere emazte Carmen Mirandaren bi margoak». Zugazak eta Mirandak, Zarauzko beste hainbatekin elkarlanean, Zarauzko Photomuseuma sortu zuten. Hain zuzen, bi elementu horiek elkartzetik sortu du Zugastik Aneren mundua: «Photomuseuma zaharberritzen ari dira, eta bertan dabil Aneren amona margolari moduan». Hori da, hain zuzen, Ane Zarautzen egotearen arrazoia; amonarekin joan da oporretan.

Adela, aldiz, bere amaren nagusien familiarekin dago jaiegunak pasatzen, Adelaren ama eraman baitute, etxekolanetan laguntzera. Adela eta Ane bertan daudela, Zarauzko hondartzan egiten dute topo, «lagunak egiten dira, eta bizitzen dituzte hainbat istorio».

### Duela lau urte idatzitakoa

Duela lau urte idatzitako ipuina da, baina egungo errealitatea

ere islatzen duena. «Une horretan nire ikasleen mundua islatu nahi nuen, eta ez nuen buruan argitaratzerik», dio Zugastik. Idazterakoan, bere artelanekin zuen lotura ikusita, «Carmeni [Miranda] oparitu nion». Eta horrela geratu zen kontua, 2019ko abendura arte. Durangoko Azokarako argitaratu zuen Erein argitaletxearekin batera, eta bertan egin zuen aurkezpena, gaztetxoenen aurrean. Orain, edozein liburu dendatan aurkitu daiteke.

### Errealitate ezberdinak islatzea, helburu

Istorioak berak ez ezik, liburuen izenburuak, baita bertan agertzen diren ilustrazioek ere, azalpen berezia dute. Izenburuak Maixa Zugasti beraren bizipenak ditu oinarri: «Zarauzko hondartzara asko joaten gara udaran. Oso goiz joaten gara, buelta bat ematen dugu, eta ondoren, irakurtzen aritzen naiz. Egun batean, tximeleta txikitxo batzuk agertu zitzaizkidan ondoan. Pena eman zidaten: han ikusten dituzu, hondartza batean, arriskuz inguratuta».

Hori da, hain zuzen, Zugastiren ikasleek bizi dutena, errealitate gogorrei aurre egin beharra: «mundu ezberdin asko dago ezkutuan, eta askotan, ez gara konziente». Mundu hori agertu nahi izan du, hain zuzen, lan honetan.

Lan honetan, baita aurreko bietan ere, errealitatea izan du Zugastik abiapuntutzat: «nahiz eta gero fikzioa egin, oso garrantzitsua da abiapuntua. Eta hori bada nire errealitatea». Bere kasuan, «zartada bat» ja-



Maixa Zugastik, 'Tximeletak hondartzan' liburuaren egilea.

sozten du, eta gero, lanean jartzen du burua, inguruan begiratu. Kasu honetan, argi zeukan: «nire ikasleen errealitateaz idatzi nahi nuen».

Idatziz nahiz ilustrazioen bidez egin du, gainera, lan hori. Ilustrazioetarako, Aitziber Alonsorekin jarri zen harremanetan orain lau urte, istorioa idatzi zuenean: «inoiz argitaratzen ez banuen ere, nire istorioarentzat ilustrazioak nahi nituen». Orduan egin zituen Alonsok liburuan argitaratzen diren irudietako batzuk; beste batzuk, aldiz, orain eskatu dizkio Erein argitaletxeak, ilustratzaile berari.

### Irun Hiria Saria, bultzada

2017an argitaratu zuen Maixa Zugastik Hernanin bizi den tolosarrak bere lehenengo eleberria. Kutxa Fundazioak urtero antolatzen duen Irun Hiria Sariari lotuta izan zen, eta hari esker kaleratu zuen *L.A.A.* helduentzako eleberria. Sari horrek ateak ireki dizkiola onartzen du,

eta bultzada horren ondorio da, baita ere, *Tximeletak hondartzan* argitaratu izana: «Irun Hiria Sariari esker ausartu nintzen Erein argitaletxean erakustera neuzkan lanak», onartzen du. Eta denborak erakutsi dio erabaki zuzena izan zela; 2018an, kaleratu zuen *Ahotsak eta itzalak* eleberria, eta aurreko urtearen bukaeran, bere azken lana: «ez nuen pentsatzen liburu bezala ikusiko nituenik!». **K**

**IRUBIDE JATETXEA**

Zure jatetxea, Epelen



Epele auzoa, 7  
943 552 480 - 667 208 702